

GIFU

GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN


GASTEIZ

Elkarrizketak

Pedro Portilla

Silum Soundz

Txema Kapetillo



Iker Iturbe

Baskoniak ez nau fitxatu nahi izan

0118 666 111 gntz 26 9

Gabon guztioi, buenas noches a todos

MARTIN REZOLA / GEU ELKARTEKO BATZORDEKIDEA

Urreraxe botatzen du agurra ETB 2ko Teleberriko aurkezleak, gauero, kontzientzia txarrak sortzen dizkion kezkak saioa bukatu arte ziplo kitatuz. Pernandoren egia da, baina esan beharra dago: hizkuntza bati esparru propiorik, berea ez beste inorena den esparrurik, onartzen ez zaion bitartean, jai dauka. Horretan, mestizajeak, dibertsitateak, eleaniztasunak... ahularen galbidea dira. Fundamentalista, talibana, xenofoboa eta aldeanoa deituko digute, baino hortik abiatu ezean alferrikakoak dira ahalegin guztiak.

Hizkuntzaren prestigioaz ere oso adierazpide egoikiak ditugu. Umorea eta txantxa ez dute, ez, sortzen euskaraz negargarri egiten duten zenbait politikari gorenak, beste edozein gizarte normalizatutan barregarri jarriko lirakeenak (nork bere buruaz barre egitea osasungarria dela erakutsi ez ziguten bada!); horiei txalo mira eta errespetua zor omen diegu, barkaberak izan behar dugula alegia, eta ez haien eskasia nabarmendu, intolerante gisa agertu nahi ez badugu. Aitzitik, modako umoregile arrakastatsuenak betiko Txomin del Regatoren irudiaz, euskaldun cashero-aren gaztelera traketsaz, baliatzen dira jendearen barrea eragiteko. Adierazgarria oso, hizkuntzaren balorazioz-eta gogoeta egiteko.

Izan ere, hemen, mestizajetat norabide bakarrek asimilazioa hartu ohi da, eta hori kolonizazioa da, ez besterik. Elebitasuna onuragarria izango bada, bi norabidekoa behar du izan, hiztunek elkarri eragin beharko diote, honek hari eta hark honi.

Ez da hori, ordea, egun ikusten duguna. Aitzitik, -susmo txarra hartzeko ere bada!- hiztun elebakarra da elebitasunaren dohaiak gorapatzen sutsuena, eta ele-

biduna, berriz, mesfidatiena eta ezkorrena. Zergatik ote?


Euskarak ezertarako balio ez badu, alegia, ez bada beharrezko inongo zeretan, nor baliatuko da hartaz? Bizitzaren azokan, erdaraz aukera eta prezio hobeak edukita, nork erosiko du euskarazko saltokian? Euskarak ematen dizun guztia erdaraz ere baldin duzu (patetikoa, ezin gehiago, telebistan euskaldun petoa erdaraz tirriki-tarraka ezinean, non eta ETB 2an!; ez al zituzten aspaldian asmatu azpitoluak?), zerk bultzatuko zaitu euskararen alde apostu egitera? Bai, bada-ki: Euskal Herrian bizi naiz, euskalduna naiz eta, horregatik, euskaraz bizi nahi dut; baina, noraino tenkatu daiteke militantismoaren soka, motibazio integratzailearena, apurtu gabe? Ezinbestekoa da, bitarteko esparru behin-behinekoak baztertu gabe, Gasteizen ere, euskaraz soilik funtzionatuko duten esparruak sortzea, nahiz eta horrek askori onartezinezko itxikeria iruditzen zaion. Eta horren alde egingo dugu lan GEU elkartearen, erdal monolingüe askorentzat gure monolingüismo-egarria bidegabeta eta garaiz kanpokoa bada ere.

Zenbaki handiek ez gaituzte itsutzen. Euskaldunen sarea indartzeak, berriz..., horrek bai; horrek txoratzen gaitu! Sare fin bat ehuntzen ari gara, poliki-poliki, hango eta hemengo euskaldunekin oihal handi bat egiteko. Eta hori, neurri handi batean, GEU GASTEIZ aldizkariari zor diegu. Gasteiz normalizatu batek euskaldunen ahotsa plazaratzea eskatzen du; Vitoria panpox-moderno batek ezin du Gasteiz indarberritu bat ixildu eta zokoratu. Mutu ginen, eta, nolabait, aldizkari honek hiztun egin gaitu. Eutsi goiari!!

geu gasteiz berriz, kolore guztiak.

Naturaren isladak

Txirri txikiak (*Caladris minuta*)



GEU GASTEIZ, Gasteizko
Euskaldunen hilabetekaria

ERREDAKZIOA:
Pedro Asua, 2 - 3.a
Telefonoa eta Faxa: 22 21 53

ZUZENDARIA:
Estihu Breñas Glez. de Zarate.

ERREDAKZIOBURUA:
Asier Dz. de Karkamo.

ERREDAKZIOA:
Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz
de Mendibil, Txabi Arenal-Gil, Raul
Saez de Buruaga, Itziar Uriarte.

ARGAZKIAK:
Edorta Sanz.

MAKETA:
Galzagain Argitarapenak
Telefonoa: 970 40 18 46

INFOGRAFIA:
Alex Badillo.

KOMIKIA:
Iñigo Sarasola

NATURAREN ISLADAK:
Jose Antonio Gainzarain.

KOLABORATZAILEAK:
Nagore Zeberio, Ainhara Zuazabeitia,
Asier Iriando, Iñigo Kastresana.

PUBLIZITATEA:
Karlos Fdez. de Betoño.

BANAKETA ARDURADUNA:
Txipi Ormaekea.

INPRIMATEGIA:
Gerlu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

ALE KOPURUA:
2.500

LG: VI-582/92
ISSN: 1133-0988
Franko Itundua 48/27 zenb.

ALDIZKARI HAU PAPER
EKOLOGIKOZ EGINA DAGO

Geu Gasteiz hilabetekariak
ez du bere gain hartzen
berlan adierazitakoen erantzunkizunik.

aurkibidea

Iker Iturbe,
Real Madrid-eko
saskibaloia
jokalari berria.

GIROLA



ELKARRIZKETA

Pedro Portilla:
*gure
aldarikapenen
aurkako
arrazoirik ez
dago, aitzakiak
besterik ez.*



iritziak

- 30 Nagore Zeberio**
Etorkizunari begira.
- 33 Ainhara Zuazabeitia**
Jarraitzen dugu, jarraituko dugu.
- 34 Asier Iriando**
Jainkoa, oporrak eta lanorduak.

laburrak

- 6 Euskara**
Añana Euskaraz, irailaren 20an.
- 10 Besteak**
Gizarte Etxeen 98-99rako eskaintza.
- 11 Kirolak**
Trebiño-Euskarri, integrazioz.

elkarrizketak

- 13 Pedro Portilla**
UDA Trebiñoko ordezkaria.
- 16 Iker Iturbe**
Real Madrideko saskibaloilaria.

kirolak

- 19 Botepronton:**
Txema Kapetillo.

erreportaiak

- 20 Publizitatea**
Arriaga, liburudenda baino gehiago.
- 22 Hizkuntza**
Euskararen, gazteleraizko mendi artean.

kultura

- 24 Musika**
Silum Soundz.
- 26 Gaurkoak eta betikoak:**
Lou Reed, Parabellum eta Manu Chao.
- 27 Agenda**
Irailko kultur ekitaldien zerrenda.
Geu Gasteiz argazki Txapelketa.

ohikoak

- 4 Santa Barbara azoka**
Euskararen termometroa
- 28 Piti-pata**
- 32 Komikia**



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak
diruz lagunduriko aldizkaria

Leku hau zuen gutunentzako utzi nahi dugu. Lagun iezaiguzue betetzen. Mila esker!

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postazi: pedro asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53

SALTZEN DUT

Larruzko kazadora bat saltzen dut. Heavy edo punky batentzako aukerakoa. Talla 40, berri-berria dago.

945 13 27 58 Espe
(9etatik 10 etara)

Antzinako txanponen bilduma saltzen dut, mende honetakoak eta nazio anitzekoak ere badauzkat.

945 14 54 90

Lanpara bat dut salgai sarrean ipintzen den kristalxo asko duen horietako dotore bat. Oso ona da..

945 22 73 03 Maite

Telefono mugikor bat daukat salgai. Ascom Elisto (Airtel). Merkaturan 19.000 pezeta balio du eta nik 15.000 pezetan salduko dizut

945 22 73 03 Jabi

Pedro Sainz margolariaren oleo bat daukat salgai. Arabako Lasarte herria da. 108x87. Sainneurria: 60.000.

945 22 73 03

DEITZEN DIZUT

Ohiko osasun sistemam asezten ez bazaituzte, zatoz Sumendi osasunaren auto-gestioaren aldeko elkartera

945 22 65 03

Ez hago bakarrik! Hator Gai-tasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkenero.

945 25 77 66

Gasteizko Esperanto Elkarte. Hizkuntza txikiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara.

Zapatari kalea, 29

Irailetik aurrera, egun osoz, kanguro euskalduna behar dut.

945 17 50 46

ALOKATZEN DUT

Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago.

945 24 08 65 Ana

Geu Gasteiz aldizkaria.
Pedro Asua kalea, 2. 3.a
faxa: 22 21 53

PREMAIAZKO TELEFONOAK

S.O.S. DEIAK:	112	AUTOBUS GELTOKIA:	25 84 00
UDALZAINGOA:	092	RENFE:	23 02 02
INFORMAZIOA:	010	AIREPORTUA:	16 35 91
SUHILTAILEAK:	16 11 11	ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:	28 20 00
GURUTZE GORRIA:	22 22 22	HIRI-BABESA:	16 11 61
D.Y.A.:	28 10 20	UDALETXEA:	16 11 00
ERIETXEETAKO URGENTZIAK:	24 44 44	FORU ALDUNDIA:	18 18 18

hozkailluan

Komentariorik gabe. Gasteizko Udalak bere horretan segitzen du, bai euskara, baita Udaleko Euskara Zerbitzua bera ere mepreziatzen. Hamaika adibide dira, baina Udalak egiten dituen lan berri guztietan bi gauza: edo euskara ez da erabiltzen, edota euskara era kaskarrean erabiltzen da. Alde Zaharreko komunak, Mendizorrotza... Hainbeste adibide dira...



Gasteiz hiriko Posta Zerbitzuko ustiapen arduradunak hainbatetan egin zaizkion gomendioak behingoz kontuan hartu dituela dirudi. Izan ere, azken asteotan hiriko postontzietan agertzen zen prohibido fajar carteles esaldia euskaratzen hasi dira. Aurrerantzean, gaztelarazko esaldiarekin batera enpresa iragarlea erantzule, kartelik ez mezua euskaraz agertuko da.



sutondoan

Torturari Stop! / Asier Dz. de Karkamo

Aurtengo hiriko festak amaituta goiz da datozen urtekoetan pentsatzen hasteko, baina, egia esateko, urtebete baino gutxiago geratzen zaigu eta... Jaiekin zerkusua duen kontu triste batekin nator hile honetan. Izan ere, niri behintzat, ileak tentearazten dizkit alboko irudiak. Zezenketa osteko argazkia da, banderilak erauzi eta belarriak eta



buztana moztu eta gero ateratako argazkia, alegia. Larrutegietako langile bat zezena larrutzen hasi da, horretarako labana bat lepoko aldean sartuz. Labana sentitu orduko zezena altxatzeko saiakera bat egiten da. Eta hau guztia dagoeneko larrutegian. Zenbat denboraz izan da torturatua animalia? Nork dakil Askotan zera galdetu diot neure buruari: zezen batek zezen hiltzailea harrapatzerakoan zer dela eta poztzen nauen. Orain ulertzen dut!

fotonotizia

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurraz eginak
eta **OSAGARRIAK**

artisaun lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu



Errementari (HERRE) 38, behea tfnoa.: 25 25 03 01013

Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobeia

Aiztogile (KUTXI), 23

kalea mintzo

TESTUAK: NAGORE ZEBERIO ARGAZKIAK; ANIA IBISATE



ISABEL ORTIZ
ETXERKANDREA

1.- Bi aldeak defenditzen ditut nik. Bai batzuek zein besteek nonbaitetik joan behar dutela garbi dago.

2.- Ez dago bide-gorriak kendu beharrik, bizikletazaleek ere bere eskubidea baitute. Irtenbide bat bide zabalagoak egitea litzateke.

- 1.- Zer diozu gaur egun bizikletazaleek bai oinezko zein auto-gidariekin dituzten arazoei buruz?
- 2.- Zein irtenbide emango zenioke arazo honi? Zergatik?

non dira bide-gorriak

Bizikletarekin Gasteizko kaleetan zehar ibiltzen zarenok jakingo duzue erokeria hutsa dela, esate baterako, Lakuatik abiatuta Armentiako zelaietara heltzea, bidean lauzpabost gizon-emakumeen oihua entzun gabe. Duela zenbait urte eraiki zituzten bide gorri famatu haiek auskalo non ageri diren gaur egun. Asko eta asko ez ziren errespetatzen eta beste batzuk, ordea, hilabete pare bat besterik ez zuten irauten. Beraz bizi zaren hiriaren beste puntan mandatu bat egin nahi baduzu, har ezazu kotxea ahal izane gero edo bestela, badakizu, ordubate lehenago prestatu zaitez eta ttipi-ttapa, pixkanaka-pixkanaka, iritsiko zara. Eutsi gogor!



SANDRA DE LOS OJOS
IRABIA

1.- Kaskoa erabiliz gero bizikletak errepidetik ibiltzeko eskubidea dutela iruditzen zait, motorrik gabeko motorrak baitira.

2.- Bide-gorriak eraikitzea irtenbide bat litzateke, baina baita kaskoekin errepidetik ibiltzea ere.



JAIME GIRALDO
IKAPETE GIPUZKARRA

1.- Oinezkoa eta ibilgailuaren gidaria errespetatu behar dira. Bizikletazale asko azkarregi joaten dira eta hau arriskua bilakatzen da maiz.

2.- Bide-gorri gehiago jarriko balira, irtenbide baten aurrean geundeko.



REGOÑA ALONSO
ETXERKANDREA

1.- Bide-gorriak jartzea ondo iruditzen zait. Zenbat eta gehiago jarri, orduan eta hobeto.

2.- Gaur egun autoen kopurua oso handia denez, bizikletazale espaloituk joatea onartzen dut, beti ere kontu handiz bada.



VICENTE PEDROSA
JUBILATUA

1.- Gehiengoaren iritzian bizikletan ibiltzen direnak oztopo direla argi dago, arazoa baitira errepidean eta espaloian.

2.- Bide-gorriak jartzea litzateke hobereana, bizikletazaleek ere eskubideak baitituzte.



HERENIA PINEDO
IRABIA

1.- Nik uste dut edozein lekutatik joaten bagara, beti kexaren bat jasoko dugula. Edozein tokitan oztopo garelara dirudi.

2.- Errepidetik joatea oso arrisksua denez, bide-gorri gehiago eraikitzeari deritzot egokien.



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

Alaitz eta Maider eta Oskorri Añana Euskaraz festako plater gozoenak

Irailaren 20an, igandean, ospatuko da aurten bere hirugarren aldia egiten duen Añana eskualdeko euskararen aldeko festa handia. Euskara Añanan Mingainean elkarreak antolatzen du festa hau, Euskal Herriko euskal hiztunen kopururik baxuena duen Añanan euskara bultzatu asmoz.

Gesaltza, eskualdeko hiriburu historikoa, izan da aurtengo festa egiteko EAMek aukeratu zuen herria. 96an Zuhatzu Koartangon eta 97an Langraitzen izandako arraskatek Gesaltzako jaiari jarraipena izatea da, dudarik gabe, antolatzaileen helburu nagusia. Izan ere, euskararen aldeko festa guztiek gure hizkuntza bultzatzeko dirua lortzea asmo badute, Añanan helburu hau bigarren mailakoa da, bertan euskararen aldeko egun bat antolatzea posible dela erakutsi nahi baitute Euskara Añanan Mingainean-eko arduradunek, duela lau urte utopia zena, alegia.

Euskara Añanan Mingainean 1.996ko udaberrian sortutako taldea da. Hasiera zail eta trabatsu hartan

festa handi bat antolatzea erabaki zuten, Añanako euskararen aldeko aurreneko elkarte zena ezagutzera eman nahian. Horrela, 96ko irailaren 22a euritsu esnatu zen arren, 2.000 pertsona inguru Koartangoko Zuhatzun egindako festara hurbildu ziren. Festa haren arrakastaren ostean berau urtero errepikatzea erabaki eta hala jaio zen Añana Euskaraz izenaz ezaguna den festa.

Hiru urte beteko ditu irailaren 20an Añana Euskaraz gazteak. Gesaltza izango da aurten egoitza, iaz Iruña de Okako Langraitz herria izan beza. Gesaltza prest da jada irailaren 20an bertaraino hurbilduko diren milaka euskaltzaleei harrera ezin hobea egiteko. Gasteiztik 29 kilometrora egonik, ordu erdi eskaseko bidea egin beharko dute Añanako euskararen aldeko borrokari sostengu eman nahi dieten gasteiztarrek. Nolanahi ere, Añanako biztanleengan jarri dituzte beren begiak EAMkoek, egunen batean, añanatar guztiak euskaraz mintza daitezen baita beren amets nagusia.

Geu Gasteiz eta EAM eskutik

Geu Gasteiz aldizkariak eta Euskara Añanan Mingainean elkarreak elkarrekin harreman batera heldu dira azken egunotan. Horrela, Añanako euskaltzaleen oihartzuna zabaltzeaz gain, herrialdeko euskara idatzia aztertzen duen erakusketa antolatu du aldizkariak Añana Euskaraz. Arabako euskal idazleak mostra Araian estreina-tua izan zen, Arabako Ikastolen Festa handiaren barnean, eta herrialdeko euskarazko idatzien historia errepa-tzen du.

Irailaren 20an ospatuko den Añana Euskaraz Fermin Herran idazle eta abokatu gesaltzatarra izango da erakusketaren protagonista, XIX. mende-an gure hizkuntzaren alde eginiko lana gogoratu nahian.



EGITAPARUA

herriko plazan	igerilekuan	pilotalekuan	gainera
10:00etan: Festaren hasiera, txalaparta eta aureskuarekin	goizan zehar: haurrentzako jolasak, puzgai-luak, tailerrak...	goizan zehar: rokodromoa	
10:15: Eskualdeko artisau azokaren zabaltzea	13:00etan: pailazoak: Takolo, Pirritx eta Porrotx	13:00etan: afizionatuen lehen mailako esku-pilota partidua	
10:30etatik 14:00etara: Añanako I. Euskal Musika Errezitala: txalaparta, trikitixa, alboka, txistua, dantzak. (antolatzailerak: Gatzagain argitarape-nak)	15:00etan: herri bertso bazkaria	erakusketak Zilarrezko 100 urte argazki zaharren erakusketa (antolatzailerak: Gatzagain)	euskal musika uneoro, buruhandiak, erraldoiak, fanfarrak, gatzagile lanbidearen azalpenak bizian, eta beste hainbat ekitaldi.
12:30etan: omenaldia	17:00etan: kontzertuak: Oskorri / Alaitz eta Maider	Arabako euskal idazleak, herrialdeko euskara idatziaren ingurukoa (antolatzailerak: Geu Gasteiz)	ibilbidea Gatzagak inguratzen dituen ibilbide didaktikoa izango da, ordu erdi eskasean egiten dena, gesal-tzatarrek biziki gomendatua.
	21:00etan: festaren amaiera		

OLARIZU MENDI
HERRIKO TABERNA
JOSE URUSUELA
KALEAN

GASTEIZKO
IRUBIDE
RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN
HERRIKO TABERNA
HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA
"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN



Hiru pailazoen etxe digitala

Gurekin Hegan izeneko CD-ROMa atera dute Txirri Mirri eta Txiribiton pailazoek. CD-ROM honetako menu nagusia Txirri, Mirri eta Txiribitonon etxea da. Ezustekoz beteriko gela ugari dago bertan: ipuinak, jolasak, musika... CD-ROMa Ikuskin entpresak argitaratu du eta bai PC, bai Macintosh-erako baliagarria da. Gurekin Hegan Gasteizko luburudenda nagusietan aurki dezakezue dagoeneko. Aukera polita, beraz, haur txikiarentzako poliki-poliki jolasean hainbat kontu ikasteko.

Berrikuntzaren aldeko apustua eginez, hiru pailazoen marrazki bizidunetako filma ere izango dute laster Euskal Herriko zinema-aretoetan.

CAF-Elhuyar V. Zientzia Saria


Elhuyar Kultur Elkarteak eta Beasaingo CAF enpresak CAF-Elhuyar Zientzi Dibulgaziorako V. Sarirako deialdia egin dute. Ohi bezala, zientziaren eta teknologiaren dibulgaziorari lotutako euskarazko lanak sarituko dira.

Bi maila izango dira. Batetik, idazle berriek idatziriko zientzia eta teknologiaren dibulgazio-artikuluak, eta bestetik, dibulgazio-liburuak. Lanak 1998ko azaroaren 15a baino lehen bidali beharko dira, honako helbidera:

Elhuyar Kultur Elkartea
Asteasuain polig. 14
20170 Usurbil

Euskal deiturak euskararen idazkerara eta ohituretara egokitu nahi dituztenentzat erreferentzia fidagarria izateko asmoz 10.000 euskal deitura jasotzen dituen Euskal Deituren Izendegia izeneko liburua argitaratu du Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeak

TREBIÑO EGUNERA
AUTOBUSEZ
UDA Trebiñok, Trebiño Egurenaren talde antolatzaileak, autobusak antolatu ditu irailaren 13an Argotera hurbildu nahi eta nola joan ez dutenentzako. Autobusak Babesgabetuen (Desamparados) plazatik abiatuko dira, 11etan, 12etan, 13etan eta 14etan. Honen eta Trebiño Egurenaren inguruan informazio gehiago Interneteko ondoko helbidean jaso dezakezue: www.eusnet.org/partaide/zortzigarrena
EUSKARA EEBB-ETAN ERE
EZTABAIDAGAI
Uztailaren 6tik 9ra Euskal Ikasketei buruzko Nazioarteko Biltzarra izan zen Renon. Munduko 70 adituk hartu zuten parte topaketetan, horietako batzuk euskaldunak edo euskal jatorrikoak. Munduan zehar sakabanatuta dauden euskal komunitateek XXI. mendean izango dituzten eronkei buruz jardun zuten adituok, euskara eta euskal kultura abiapuntu. Jardunaldiok Nevadako Unibertsitateko Basque Studies Programmek antolatuak izan ziren.



Bonardi '98

bilduma, monturak 3.150 pta.n



Orain, milaka sariren zozketan parte hartu ahal izango duzu Bonardi bildumako edozein montura erosteagatik



ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

*Promozio horiek 98-10-30era arte balioko da



Bezeroaren arretarako telefonoa: 900 34 35 36
<http://www.multiopticas.es>

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI

HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguay kalea 17
☎ 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA

HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 ETA 3
☎ 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 ETA 3
☎ 26 78 97



JOSEBA

HARATEGIA

Paraguay merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



Floridako altxorra !

35

adaka
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

Denok denetatik

Gasteizko Gizarte Etxeek 98-99 kanpainako ekitaldi sortari hasiera eman diote

Kirola, kultura, gizarte sustapena eta osasuna. Lau arlo horietan banatzen da Gasteizko Gizarte Etxeetako 98-99 kanpainari dagokion jarduera sorta. Hamabi dira dagoeneko Udalak egun artean ireki dituen Gizarte Etxeak. Bi dira, hortaz, iazko kanpainan parte hartu ez dutenen kopurua, azken hilabeteotan Hegoalde eta Aldabe eraikeinek zabaldu baitituzte bere ateak.

Jarduera ezberdinetan izen ematea bertan, hau da, ekitaldiak burutuko diren lekuetan egin beharko da, salbuespen batzuen artean: Hipika eta Gamarrako piraguismo ikastaroetarako izena ematea Mendizorrotzako K.Z.n egin behar da, Bizikletatrialekoetarako Betijai pilotalekuan, Aranako borroka ikastaroetarako Aranalde kiroldegian eta Landatxoko ikastaroetarako Aldabe Gizarte Etxean.

Gainontzeko ikastaro, ekitaldi eta era desberdinetako jarduerak dagoen Gizarte Etxeetan egingo dira. Udalak antolaturiko ekintzak anitzak diren arren, zenbait kasutan parte-hartzea mugatua da eta zozketak burutuko dira, besteak beste, izena eman dutenen artean ordutegi banaketa egiteko. Hori dela eta Gizarte Etxeetara bertara joatea gomenda-



Honako irudiak izango dute ikasturte osoan zehar burutuko diren ikastaroek

tzen dizuegu, ikastaroen zerrenda oso luzea baita eta guri ezinezkoa baitzaigu aldizkarian osorik argitaratzea. Hona hemen, badaezpada, Gasteizko Gizarte Etxeetako telefonoak, behar adina argibide jaso dezazuen.

Abetxuko (284714), Aldabe (Eulogio Serdan, 2; informazio hau idazterakoan telefonorik ez zuen oraindik), Pilare (228241), Hegoalde (161880), Arriaga (161770), Lakua (171664), Judimendi (161740), Iparralde (161750), Europa (161233), Ariznabarra (133691), Landatxo (161680) eta Arana (26 70 40). Gogoratu beti ere Arabako aurrizkia markatu behar dela, 945 alegia.

Teloia gora!

Hemen dugu ia. Hilaren 24an Els Joglars talde kataluniarak Gasteizko XXIII. Nazioarteko Antzerki Jaialdia zabalteko ohorea izango du. Argiak piztu, teloa igo eta... larritu gaitzen! Larritu, bai, ondo irakurri duzue. Aurten ere, Kultura eta Euskara Zinegotzi berria eta abertzalea dugun arren, gaztelera baita nagusi (eta nola!) Antzerki Jaialdiko egitarauan. Hona hemen datu pare bat: haurrentzat antzeztuko diren 14 lanetatik 4 besterik ez dira euskaraz izango (zertarako matrikulatuko ote dira euskal ereduetan?), eta helduentzat eskainiko diren 45 lanen artean 4 (bi antzeztan eta bi opera) baino ez.

Tanttaka eta 3xTr3s taldeek eskeini-ko duten Dakota, izango da euskaraz ikus ahal izango dugun aurreneko emanaldia. Baina urriaren 15a arte itxaron beharko dugu baina. Urriaren 25an Tanttaka izango dugu berriz, kasu honetan Aitaren Jokoak antzeztanarekin.

Antzerki Jaialdiko izarretako bat, dudarik gabe, aurten estreinatu den Leidor opera izango da, urriaren 24an. Eduardo Mocoeroak eta Emeterio Arresek idatzia eta Juanjo Oconen zuzendaritzapean, kritika bikainak jaso ditu orain arteko emanaldietan. Sarobe taldeak eskainiko du, abenduaren 4an, Jaialdiko euskarazko beste opera. Iziar du izena eta Migel Oñaterena da.

Ardatz itzulpen eta euskaraz zerbitzuak

Arana kalea, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

**PUBLIZITATERIK MERKEENA
ETA ERAGINKORRENA**

GELU
GASTEIZ
PEDRO ASUA, 2. 3A.
22 21 53



HEGOALDE
euskaltegia

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitez!

Tu Invernadero
zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

Futbola integrazioaren aldeko bidean euskarri ezin egokiagoa

Irailaren 13an arabar eta euskal herritar guztiok zita dugu Argoten, urte beteko atsedenen ostean, bueltan den Trebiño Eguna ospatuko baita bertan. Desanexio eta integrazioaren gaiak inoiz baino ageriago diren honetan, Konderriko historia modernoak bere festarik arrakastatsuen bizitzeko prest da jada eta, arraroa ez denez, elkartasun mezuz gainezka dute, trebiñotarren, postontzia.

Euskarri Kirol Elkarreak ere bere aldeotasuna adierazi nahi izan die Trebiñoko herriari eta Trebiño Egunaren antolatzaile den UDA Trebiño taldeari eta, futbol taldeak denboraldia prestatzen ari direla aprobetxatuz,



Integrazioaren aldarrikapena eta euskara izango dira Trebiño Egunaren bezperan

integrazioaren aldeko futbol partidua jokatu dute, Trebiño Egunaren bezperan, Eskualde mailako Trebiño eta Euskarri taldeek Frankoko berdegunean.

Juan Fernandez txirrindulari

ohi gasteiztarrak Festina taldeko entrenatzailea izango da datozen urteetan.

Espainiako Itzulia du aurreneko frogara, munduko talde ziklista onenak Tourrean jasotakoa eta gero.

A, ze zortea

Iaz balio ez zuenak balio ote du aurten? Horixe zetorkidan burura Baskonia Igor Moraitisen atzetik zebilela entzun nuenean. Guinness errekorren liburuak honantz dituzte begiak zuzenduta, jokalariek gehien lesionatzen zaizkion (edo lesionaturik erosten dituen) taldea izan baitaiteke gurea. Europar Elkarreak ekialdeko nazioei atea zabalduko dizkiela ere esaten dute mingain luzeek, Kerejetak jokalariek komunitario gehiago eros ditzan. Bitartean, Iker Iturbe zuriz!

izena eman

æki

euskaltegi eta barnetegiak!

Peru, 8
22 60 50

Jose Mardones
kalea, 8
26 35 40

Arana, 30
25 24 00



GUREA

jatetxea

Konstituzio plaza, 10
Telefonoa: 24 59 33

$$1 \times 2 = 2$$

2000 BAGARA
4000 IZAN GAITEZKE



HARPIDEDUN!

zure aita, ama, ancia, arreba, iseba, osaba, lehengusua, lehengusina, semea, alaba, aitona, amona, iloba, berramona, berraitona, biloba, aitagarreba, amagarreba, suhia, erraina, lagun eta ezagunak...

...EGIN ITZAZU HARPIDEDUN

PASAIEZU TXARTELA, BETE DEZATEN

Izen-deiturak _____
 Telefonoa _____
 Helbidea _____
 Kodea _____
 Herria _____
 Jaiotze data _____ Lanbidea _____

Urteroko kuota: 1.500 pezeta
 Kontu zenbakia (20 zenbaki)

Entitate _____ Sukurtsala _____ K.D. _____ Kontu zenbakia _____

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA
PEDRO ASUA, 2. BA.
01008 IFNOAL: 22 21 58



Pintore kalea, 74. 28 97 80 Zaldiaran plaza, 16. 24 49 05
Errege-Erregina katolikoak, 15 - C. Behea. 28 89 22 28 89 44

Miauka, kurrinka, kakaraka... baina euskaraz

MATRIKULAZIO EPEA
irailaren 1etik 19ra



*HABEren
dirulaguntzaz
antolatuturik,*

2. 3 ETA 5 ORDY

MAILA GYZTIAK

EGA. MINTZA ETA SAKONTZE



baina euskaraz baina euskaraz baina euskaraz



kide

APAINDURA

Zerkabarren (Cercas), 27 Tfnoa: 14 41 95 GASTEIZ



Orixe da UDA Elkarrearen jardueraren oinarria: Anexioaren alde aritu arren, ez dugu erabakirik onartuko erreferenduma burutu gabe. UDA Elkarreak aurreko Trebiño Eguna, (Argote, irailaren 13) inoiz baino jendetsuagoa izatea espero du, gertatu den guztia gogoan izanda kutsu errebindikatiboagoa ere izango du.

Zer iruditzen zaizue Eusko Jaurlaritzaren inizatiba, Gernikako Estatutuaren bidetik Trebiñoren anexioa eskatzea, alegia?

Legebiltzarraren eskakizuna izan arte itxaron du Jaurlaritzak, nahiz eta beharrezkoa ez izan. Iniziatiba interesgarria da, berriro adierazten baita Trebi-

ñok konponbide bat behar duela, eta honen oinarria trebiñotarren borondatea errespetatzean datza. Gaztelako Estatutuaren pareko maila duen legea da Gernikako estatutua, eta Trebiñoko bi udalek bi estatutueta zehazten diren prozesuak martxan jartzeko erabakia hartu dute. Orain Madrilgo Gobernuak Eusko Jaurlaritzak hasitako bideari erantzuna eman beharko dio.

Gernikako Estatutuaren bidean Gaztela-Leongo Juntak egin behar duen informea binkulantea al da?


Ez eta legearen ikuspegitik informe bat binkulantea dela esatea oso zalantzarria da. Gure ikuspegitik hutsune asko dago Gaztela-Leongo Estatu-

‘Trebiñoren aldarrikapenen kontra egiteko arrazoirik ez dute’

portilla pedro

Azken hamar hilabeteotan hamaika aldiz eman du Pedro Portillak Trebiño eta trebiñotarren arazoan berri, baina aukera guztiak aprobetxatzen ditu bere herritarren nahia kontuan izaten ez duen **ustezko demokrazia salatu** eta eztabaida politikoaren berotasunean ere Trebiñon jendea bizi dela aintzakoztat hartu behar dela gogorazteko.

TESTUAK: LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI ARGAZKIAK: EDORTA SANZ



Gernikako Estatuaren bidea bestearen ostean edo bestearekin batera egin behar den ere ez da inon ageri

tuan desanexioari buruz hitz egiteko orduan. Ez du esaten informea binkulantea denik, ezta informea desanexioaren aurkakoa izanda ere, prozesua geldiarazteko ahalmena duenik. Horrela dela dirudi, baina ez dago oso garbi. Informeak prozesua geldiarazteko ahalmena duela onartuta ere, behin-betiko erabakia denik ere ez da aipatzen, ezta berriro noiz eska daitekeen ere. Gernikako Estatuaren bidea bestearen ostean edo bestearekin batera egin behar den ere ez da inon argitzen. Baina batera egitea da logikoena, Burgosetik desane-

xioa lortu eta Arabak anexioa ukatzeko aukera ager liteke, bestela. Zer egingo genuen orduan?

Gaztela-León eta Estatuko gobernuak berriro ere ezetz esan eta EAEko Estatutuko bidea bertan behera geratzea da litekeena, ezta?

Litekeena da, baina hori gertatuz gero hemengo alderdiek zerbait egingo dute, ez? Gernikako Estatuak, edo artikulu horrek behintzat, balio ez duela esan nahi badu, jendeak mugitu beharko du. Zergatik izango du pisu gehiago Gaztelako estatuak EAEkoak baino?

Zer deritozoe EAE eta Arabako erakundeek izandako jarrerari?

Orain arte neutraltasun jarrera mantendu dute eta guk hori hasieratik kritikatu dugu. Arabak lan egiteko parada eta baliabideak ditu. Hortaz, sinesgaitza da Arabak barruan duen lur zati baten alde ezin dezaketarik ezer gehiago egin. Auzian parte hartzen saiatu direla salatu da Burgosetik, baina Arabatik anexioa eskatu ere ez dute eskatu. Bertakoen borondatea errespetatu besterik ez dute egin.

Hori erakundeek dagokienez, gizaritari buruz, zer?

Trebiñoko auzia jendeari begiko zaio, baina gehiengoa urrunetik begira gelditzen da, ez da inplikatzeko, eta inplikatu behar da, eta ez bakarrik elkartasunagatik, demokrazia bera ere jokoan dagoelako... Egun herritarren borondatea errespetatu dadin eskatzen ibiltzea ere...!

Burgos eta Gaztelako biztanleek erakundeek adinako jarrera itxia dauka?

Kaleko jendearentzat auzi hau ez da politikarientzat bezain garrantzitsua. Boterean daudenek ez dute euren agintaldia Trebiño galdu zuen hura bezala gogoratzea nahi. Bestetik politikariek beti saldu nahi izan dute euskaldunek lur zati bat kendu nahi

dieten ideia, herritarrek xaxatzen ibili dira gure kontra eta orain oso zaila daukate atzera egiteko.

Jendearen artean gauzak aldatuz doaz, agian gehienek Trebiño Burgos izaten jarraitu dezan gura dute oraindik ere, baina beren nahien gainetik bertakoen borondatea dagoela pentsatzen hasia da lagun asko.

Politikakeria guztiaren atzetik herritarren eguneroko problemak daude, ematen ez diren zerbitzuak, ase gabeko beharrak! Nola bizi duzue egoera hori?

Trebiñon premia eta arazoak

dituen jendea bizi garea kontuan hartu beharra dago. Desanexioa eskatu dugunetik, bulego bat zabaldu dute Mirandan eta Unibertsitatari Konterriak dituen arazoan gaineko ikerketa eskatu diote. Desanexioa eskatzean Trebiño hor dagoela jakin berri dutela ematen du.

Trebiñoren beharrei aurre egiteko egin beharreko lehenengo gauza desanexioaren auziari behin-betiko irtenbidea ematea da

Behar horiei aurre egiteko konbenioak ezinbestekoak direla esan digutenean ez dugu ezetz esan, baina egin beharreko lehenengo gauza desanexioaren auziari behin-betiko irtenbidea ematea da. Etor-kizunean zer gertatuko den jakin gabetik ezin egin daiteke ezer. Adibidez, nork konponduko du errepeida? Arabarako garrantzitsua da, baina Burgosi bost axola.

Gaztelako erakundeek jendea erosten saiatu dela salatu duzue...

Trebiñon itzal eta babes (klientelismo) handia egon da: inbertsio gutxi egin dira eta guztiak herritarrek harrapatuta eta lotuta edukitzeko. Jarrera honek gainera herria eta jendea banatzea lortzen du, eta arduragabekeria itzela da liskar giroa sortzen du-eta; erakundeek auzokideari mesedeak egiten dizkiotela ikustean besteak haserretu egiten dira.

Gauza horiek ezin daitezke frogatu, baina Trebiñon denok ezagutzen ditugun zenbait kazike nahi duten guztia bereganatzeko azpikoetan ibili ohi direla sobera jakina da.

Burgoseko Diputazioak eta Gaztela-Leongo Juntak Trebiñoren inguruan egindako txostenari erantzunez, UDAk prestatu agiria zertan geratu zen?

Ez genion "kontraxostena" deitu nahi izan, Juntak egindakoa txostena ez delako, ezerezkerien bilduma baizik. Pentsa ezazu, gaztelaraz mintzatzen delako Gaztelako parte dela esatea ere... Horrela aztertuta, Gaztela dira Colombia eta Venezuela ere. Beste pisuzko arrazoietakoa bat da bertako eliza

erromanikoen ez dakit nongoekin antza izugarria dutela... Sines-tezina benetan!

Gure txostena ere ez zen sakonegia, baina saiatu ginen gure uztardura soziokulturala, baita lan kontuak ere, Araban daudela ikusarazten, norekin bestela?

EAE eta Gaztela-Leongo ordezkari zek duten Komisio Mistoa-ren lana baliagarria izan datiteke?

Administrazio asko dandenez guztiak biltzeko foro bat beharrezkoa dela deritzogu. Baina Komisioak ez du ezer handirik gauzatu; bildu egiten ziren, Senatua-ren erabakia onetsi zuten,... Eginiko azken bileran aurre-rapausu txikitxo bat eman zen: Trebiñoko bi alkateak gonbidatu zituzten, oso erabaki logikoa da-eta, ez baitu zentzurik Trebiñori buruz hitz egitea Trebiñoko orde-

karitza barik. Dena dela, Trebiñoko alkate ohiak ez zuen gonbidapena baietsi.

Foro hori hor dago oraindik, baliogarria da eta maizenik bildu beharko litzateke. Gauza ugari daude egiteke: legalitatea interpretatu behar da, konbenioen gaia ere hor azter daiteke...



Eman bidea Trebiñori.
Horixe da azken hilabeteotako trebiñotarren aldarrikapena eta hilaren 13an Argoten egingo den Trebiño egunaren leloa

A, ze urtea

Urtarrilaren 15a

Trebiñoko Udal Plenoak herritarrek erreferenduma egingo denentz erabaki dezaten herri kontsulta egitea erabaki zuen.

Otsailaren 22a

Gobernuak herri kontsulta egiteko baimena ukatu zuen. Rodriguez bozeramale ohiak eman zuen erabakiaren berri, deliberamenduaren oinarriak politikoak zirenik ukatuz. Alkateek ezin dute erreferendumik egin. Auzi hau udalen eskuduntzen gainetik dago. Gainera, horrelako erreferendum bat egitea Gaztela-Leon eta Gernikako estatutuen aurka doala esan zuen.

Martxoaren 8a

Zazpiehun lagunek bozkatu zuten: 471 alde eta 221 kontra. Hamarretik zazpi erreferenduma egitearen alde azaldu ziren.

Martxoaren 12a

Mariano Rajoy-k, Herri Erakundeen ministroa, Gobernuaren Jarreraren berri eman behar izan zuen Madrildu Parlamentuan, Inmaculada Boneta parlamentariaren galderei erantzunez.

Martxoaren 15a eta 16a

Lapuebla eta Trebiñoko udalbatzek desanexio prozesuari hasiera eman zioten.

Martxoaren 31a, apirilaren 2a

Gaztela-Leongo Juntak lehenengo eta Burgoseko Diputazioak gero Trebiñoko desanexio eskaerari ezetza eman zioten. Maiatzaren 7an Osoko Bilkura berezia egin zuen berriro ere Juntak Trebiñoren gatazta aztertzeko; onartutako ponentzian ez zen konponbiderik aipatu.

Apirilaren 6a


Ernesto Argote-k, Trebiñoko alkatea, dimisioa aurkezteko asmoa agertu zuen. Trebiñoko udalak behin-behineko egoeran jarraitzen du, PPK ez baitu dimisituta dutenen lekua betetzeari.

Maiatzaren 25a

UDA Trebiño Elkarteak bi kidek gose grebari ekin zioten; hamabi eguneko lutzatu zen baraualdia. Bi laguneko asmoen berri izatean Vicente Orden Vigara presidentea grebari batek ez dio inolr halterik egiten adierazi zuen.

Ekainaren 19a

Gasteizko Legebiltzarrek eskaera egin zion Eusko Jurlaritzari, Gernikako Estatutuak ezartzen duen bideari behingoz ekin eta Trebiñoko anexio prozesuari hasiera eman ziezaien lehenbailehen. EAJ, EA, IU eta HB-ren botuekin onartu zen erabakia, eta Jurlaritzak San Fermin eguneko onartu zuen Legebiltzarren akordioa. Prozesua martxan dago berriz ere.



Urrats handi bi eman ditu Ikerrek Clemsonen. Karrera egiteaz gain, etorkizunean Saskibaloi jokalaritza paregabea izatera helduko da hain emandako urteei esker.

Baskoniak ez du Gasteizko jokalaririk ekipoa.
Aurten, Iker Iturbe fitxatzeko aukera izan du
Kerejetaren taldeak, baina bi aldeen arteko akordiorik
ez da izan, eta ondorioz, gasteiztarrak Madrilerako
bidea hartu du. Ez dago ulertzerik, **Gasteizko
puntako jokalaria** bat dugu, eta Real Madrid
taldean dago.

TESTUAK: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

iker iturbe

*‘Baskoniak ez
nau fitxatu nahi izan’*

Real Madrileko jokalaria gasteiztarra

Iker Iturbe etorkizun handiko jokalaria da, Estatu Batuetako Unibertsitate Ligan onenekin ibili da lehian, eta esan daiteke Pat Burke jokalariairen parekoa dela. Zoritxarrez, ezin izango dugu Gasteizen ikusi.

Txikitán Gasteizen, gaztetan Estatu Batuetan, eta orain, noiz arte Madrilen?

Momentuz, bi urtez, eta gehiago bada, hobe, baina, gero gerokoa.

Zuk Gasteizen jokatu nahi zenuen arren...

Lehen, bai. Gasteizkoa izanik, atsegina nuen etxean jokatzeari; halere, Scariolok izan ezik, inork ez nau fitxatu nahi izan. Zuzendaritza taldeak ez zuen inolako interesik erakutsi, eta Madrilerako bidea hartu behar izan nuen.

Baskoniak ez zizun ordaindu nahi eskatutakoa...

Diru gutxiago eskuratu arren, Gasteizen jokatzeari nuen gustoko, baina gakoa ez zen dirua izan. Ez bazaituzte nahi, akabo, ez dago etxean jokatzetik.

Eta Gasteizen zer utziko duzu?

Ez dut ezer utziko; Gasteiztik oso gertu nago. Urte asko eman ditut Estatu Batuetan, eta hori bai zela urruti; orain, aldiz, lagunengandik eta senitar-tekoengandik hurbil naiz.

Azterketak orain berri bukatu dituzu. Ikasiz ala kopia-tuz?

Han ez dago kopiatzerik; oso ezberdina da, kontrola handia baita. Gainera, ikasleen arteko lehia izugarria duzu, eta guztion helburua onena izatea da. Ikastola aspaldi utzi nuen, ahaztu zait kopiatzen.

Eta txuri kolorea gustatzen zaizu?

Txikitan ez, Baskoniazale amorratua bainintzen, baina, orain profesionala naiz, eta Real Madrid da nire taldea.

“Baskoniakoek nahi badute izango naiz etorkizunean taldeko jokalaria; bestela ez!”

Zure bizimodua ez da gazte gehienek modukoa...

Ez. Aita-amak eta hirurok pentsatu genuen Estatu Batuetara joatea zela onena. Nire bizimodua ez da gainerrakoa baina hobea, alde onak eta txarrak ditu eta. Txikitatik saskibaloia jokalaria izan nahi nuen, baina ikasi behar nuela ere erabaki genuen. Egia da; gehienek ez dute aukera hori izaten.

Aurtengoari begira, zein duzu helburua?

Helbururik ez daukat. Ahalik eta lanik txukunena egiten ahaleginduko



naiz, aukera bakarra baita. Dena den, lasai nago; askok eta askok uste dute ez dudala hasierako bostekoan jokatuko, baina horiei oker daudela erakusten saiatuko naiz.

Clinton-Lewinskyri buruzko txisteren bat...

Estatu Batuetako gizon-emakumeek ez dute txisterik egiten kontu

horrekin, lotsa da nagusi, eta gehienek uste dute ez zela harreman hori argitara eman behar, baina behin jakinez gero, Clintonen gezurrek kezkatzen dituzte.

Eta bertan euskaldunen berririk?

Batzuek bai. Gure historia, ohiturak, hizkuntza... ezagutzen dituzte,

baina, zoritxarrez, beste batzuei, Euskal Herria aipatu, eta ez dakite ezer, edota ETA izena azaltzen da... Alabaina, ni beti gurea azaltzeko ahaleginetan ibili naiz.

Etorkizunari begira, Iker Iturbe Baskoniako jokalaria?

Haiek nahi badute, bai; bestela, ez.



Gutxiak bezain ondo ezagutzen du Txemak Iker. Urgatziko entrenatzaile zenean bere taldean izan zuen eta, orduantxe, EEBBetara ikasketak burutzeko joatea gomendatu zion.

botepronton

Txema Kapetillo

Baskoniako entrenatzaile-ohia

Txemak txikitatik ezagutzen du Iker. Olabide Ikastolan haren entrenatzailea izan zen, eta nolabait, bere maisua ere bai. Bere gomendioei jarraituz, eta gurasoen baimenarekin, Estatu Batuetara abiatu zen, eta han jokatzear gain, ikasi ere egin du jokalaria. Aurtengo abuztuan bukatu ditu ikasketak, eta oporrik izan gabe, Madrilen dago orain. Zorte on Iker!

Iker Iturbe ondo ezagutzen duzu. Noiz antzeman zenuen puntako jokalaria izan behar zuela?

Egunez egun. Ikastolan zegoela, 11-12 urterekin, oso garaia, indartsua... zen, baina, horrez gain, kalitatea ere bazuen. Gainerako mutilekin alderatuz, aldea izugarria zen. Oso ondo eman ditu urratsak, ikastolan, selekzioan zein Estatu Batuetan.

Gogoan duzun Ikerren norgehiagoka bat.

Urgatziren eta Marianistasen arteko finala zen. Bi punturen aldeaz irabazi genuen, eta Ikerrek 50 puntu sartu zituen, taldeak lortu zituen puntuen % 60a baino gehiago.

Real Madrid taldean bestelakoa da, ordea...

Bai, aldaketa nabaria da. Halere, oso

sasoi onean dago, ez baititu 18 urte. Estatu Batuetan ikasketak bukatu ondoren, badaki zer den 27.000 zaleturen aurrean jokatzeari, baina, bai, Real Madrid taldean presioa eta konpetentzia handiak dira.

Bitartean, Baskonian ez dago jokalaria gasteiztarrik...

Ez dut ulertzen. Ikerrek hemen jokatu nahi zuen, baina Baskoniaren interes eza nabaria zenez, Real Madriden eskaintza onartu zuen. Europako talderik onenek fitxatu nahi zuten, eta ez zioten eskaintza ona egin, ez dago ulertzerik. Joan den urtean, bera bezalako jokalaria bat etorri zen, Pat Burke, alegia;

Gasteizko jokalaria on bat daukagu, eta

alde egiten uzten dute...

Haserre zaude Txema...

Bai. Hau bezalako talde batean, Euskal Herriko ordezkaria... Iker behar genuen gurean. Gainera, gure instituzioen dirua tartean da, hau da, guztion dirua.


“haserre nago bai; Euskal herriko ordezkaria... gurean behar genuen... Gainera, gure instituzioen dirua tartean da, guztion dirua”

Bukatzeko, atzetik Ikerren anaia dator, Antxon, alegia.

Hiru urte gasteagoa da, baina ez bada okertzen, Iker bezain ona izango da.

TESTUA: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

ARGAZKIA: EDDORTA SANZ



UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendañu kalea 48 • Tfnoa: 22 34 33

GASTEIZ

MIKO

izozkiak

PARRAL

SAN FRANCISCO KANTOIA 4 GASTEIZ
TEL. 276833 01001

Astakeratzen
JARROKI BEGELININDIA

Astakeratzen
Kontuztenak
Astelekoak
CEAB

liburudenda baino zer edo zer gehiago

Gure hiriko kulturegune baten itxierak goibeldu gintuen orduan, baina orain kulturaren alde apustu egiten duen ekimen berri bat txalotzeko unea heldu zaigu gasteiztarroi. Horrexegatik, joan den uztaillaren 13an Arriaga liburudendak bere atea zabaltu zituenean, Gasteizen bizi garenok pozteaz gain, ilusioz hartu genuen egitasmo berri hau.



TESTUA: RAUL SAEZ DE BURBAGA ARGAZKIA: MORTA SANZ

Hiriko erdialdean zehar bueltatxo bat ematea aitzakiarik hoberena izan daiteke San Prudentzio kaleraino gure oinak bideratzeko. Hango 7 zenbakian orain dela bi hilabete ez zegoen erakuslehiu handi batekin topo egingo dute gure begiek. Arriaga liburudenda irakur daiteke



errotuluetan, baina laister kontura gaitzeko liburudenda baino zerbait gehiago dela horma horiek babesten duten gunea.

Atetik sartu bezain pronto, leku zabala irekitzen zaigu aurrean; kulturaren megadenda. Oso erraza da 800 metro karratu horietan gure burua galtzea. Gaika

sailkatuta, eskaintzen diren kultur-produktuek etxebizitzaz aldatzeko nahia adierazten diote bertaratzen denari, inork beraengan interesa azaltzearekin bakarrik ere alaitzen diren arren. Edozein liburu zein disko edota aldizkari aurki daiteke Arriaga liburudendan. Haatik ez du erraza izan behar 80 mila liburu, eguneroko egunkariak, aldizkariak, bideoak, komikiak eta 12 mila diskoren artean nahi duzuna aurkitzeak.

Zerbitzu horretarako 13 lagunek lan egiten dihardute astean zehar, eta lau gehiagok asteburuetak txandak, igandeak barne, betetzen.

Denda irekia

Denetara ere, produktuak saltzeko ezezik, kultur ekitaldiak antolatzeko ere sortu genuen denda. Gasteiz mailan kultur munduan dauden egitasmoak lotzen dituen proiektu baten falta ikusi genuen, eta hau berau da liburudenda honek bultzatu nahi duena. Ideia horri bueltak emanez, eta Gasteizko bi liburudenda itxiz gerotik, Linacero eta Herrikoia hain zuzen ere, hutsune bat betetzeke zegoela konturatu ginen, azaltzen zuen Arriagako arduraduna den Josu Olanok. Liburudenda batzuek ahalik eta lasterren etekinak lortu nahi badituzte ere, gure aldetik hori ez da xederik garrantzitsuena. Argi dago aurrera jarraitzeko liburuak saldu behar ditugula, baina kultur egitasmoak ahantzi gabe.

Josu Olanoren hitzetan ahalik eta jende gehien erakarri nahi dugu liburudendara. Erosten badute, primeran. Erosi ezean, behinik behin gugana hurbiltzea eta gure egitasmoarekin bat egitea zein identifikatzea da interesatzen zaiguna. Gasteizko kultur munduan mugitzen den edonork bila diezaieke irtenbidea bere ideei, liburudendako arduradunekin hitz eginez gero. Gu edozein egitasmoni laguntzeko prest gaude. Baldintza bakarra kultura izatea da. Gure esku dauden baliabideak eskainiz, ekimen horiek ahal den neurrian ezagutzera emango genituzke; hauek eta gizartearen artean falta den lotunea izan nahi genuke nolabait.

Orain arte ez da ezer atondu, baina hil honetatik aurrera hitzaldiak, prentsaurrekoak, liburu edota diskoen aurkezpenak, antzezlan txikiak etab. jasoko ditu Arriagak. Ahalbideak baditu, erabili baino ez da egin behar. Harreman sendoak zein serioak erdietsi nahi ditugu kulturgileekin, baita Gasteizko kolektiboekin ere. Jarraipena eman nahi diogu ekimen honi, ekintza puntual batzuetan gero ez dadin. Lasai eta ondo planteatuta nahi ditugu gauzak, hartu-eman sendoek eraginkortasuna emango baitiote ekimenari, adierazten zuen Josu Olanok saltoki honen filosofia azaltzeko orduan.

Esperientzia handia

Argi dago holako ideia bat aurrera eramanez ahal izateko zer edo zerk egon behar duela atzean. Gure hirian Arriaga paperdendak, San Anton plazan kokaturik, lehenengo urratsak eman arren, Euskal Herriko merkaturan Arriaga bertakotua dagoen enpresak oso esperientzia handia dauka: Doinua disketxea, Zabaltzen liburuen banaketa-enpresa, eta hain ezagunak diren beste liburudenda batzuk, "Bilintx" Donostian, "Urretxindorra" Iruñean... enpresa bereko adibide batzuk baino ez dira. Erakunde hauek duten funtzionamendu ona bermerik ziurrena izan daiteke Gasteizko liburudendarako. Halako liburudenda bat irekitzen duzunean arriskua nork bere egin behar du. Nolanahi ere, hori ez da gehien kezkatzen gaituena. Espero dugu salmenta normala izatea. Liburuak saltzea, edonork egin

dezake, baina guk bilatzen duguna, eta hau da gure enpresako gainontzeko erakundeekin batzen gaituena, ez da hain erraza.

Askok kanpotarrak garelako leporatu digute, Gipuzkoatik edo etorriak; baina hori gezurra da. Hemengoak, gasteiztarak gara. Liburudenda Gasteizko diruarekin eraiki dugu eta lortuko diren etekinak Gasteizko kultur inbertituko dira, azpimarratzen zuen Josu Olanok. Enpresako erakunde guztiak bateratzen gaituena filosofia da, baina ez pentsa tratamendu berezirik jasotzen dugunik bertan integraturik dauden gainerakoek aldetik.

Bezere desberdinak

Gasteizko hain leku pribilegiatuan kokatua egonik, honezkero bisitari zeharo desberdinak ezagutu ditu eta ezagutzen segituko du liburudendak. Hori garbi geneukan ireki aurretik: batzuek oportetean irakurtzen dute bakarrik; beste batzuek, ordea, kasik egunero; beste batzuek, berriz, musika baino ez zaie interesatzen. Efa guztiei erantzun behar diegu.

Horregatik euskararen presentzia ere hortxe da. Gasteiz batean, kultur mailan, bi kultura daukagu, erdalduna eta euskalduna, eta ez dugu ez bata ez bes-



tea baztertu behar. Ildo honetatik, euskaraz kontuan hartzen dugula agerira ateratzen dugu, baina ez euskaraz soilik. Kultur bakar baten alde apustu egingo bagenu, egitasmo honek ez luke ondorio onik ekarriko. Kultur mailan ezin daiteke inor zokoratu. Testuinguru honetan garbi dago ez dagoela euskal kultura eta euskaraz bazterterik. Gure egoitzan ekitaldi bat nahiz erdaraz nahiz euskaraz egiten bada, ondo, bertako talde batek eginez gero...

GAZTELERAZKO mendi arte



EUSKARAREN ALDE HIRIAN INOIZ EGIN DEN
EGITASMORIK HANDINAHIANA ABIAN DA

Euskharan Kultur Elkartearen izenarekin jaio da eta, ez da gutxi, hiriko biztanlegoaren laurden bat euskalduntzea du helburu. Horrela laburbil dezakegu azken hilabeteotan Aranbide, Aranbizkarra, Aranzabela eta Zaramagako auzo elkarteek, euskaltegiek, ikastoletako guraso elkarteek eta beste hainbat gizarte taldek elkarrekin ekindako egitasmoa.

Euskharanek auzo euskaldun bat lortu nahi du, txikiak ikastolan eta helduek euskaltegietan ikasten dutenari jarraipena eman diezaiekona, ikasle eta irakasleen sostengurako. Euskharanek Euskal Toki bat *eraikitzea* du helburu nagusi, euskararen erabilpena eta euskal kulturaren eza-gupena bultzatu, eta kultur jarduerak sustatuko dituena. Hiriko zati horretan populazioaren laurden bat ingu-

ru bizi dela kontuan izaki, dudarik gabe, euskararen alde hirian sekula egin den egitasmo handinahienaren aurrean geundeke. Geu Gasteiz aldizkariaren datozen hilabeteotan Euskharan proiektua eta berak emandako fruituak zuenganatuko dizkizuegu; bitartean, asmoaren handitasuna islatzen duten hainbat datu emateko aukeran gaude.

Euskharan, Zazpigarren Alaba (Aranzabela, Aranbizkarra eta Aranbide) *Auzo Elkarte* du abiapuntua. Zazpigarren Alaba izan da proiektuaren sortzaile eta berau aurrera eramateko lagun bila aritu da. Hamaika elkarriketaren ondoren, Zazpigarren Alabak Euskharan egia bihurtzeko bidean aurkitutako sostenguak egin du posible dagoeneko hainbat ekimen burutu ahal izatea. Egun, honako talde hauek osatzen

dute Euskharan: Zazpigarren Alaba, Bizigarri Zaramagako Auzo Elkarte, AEK, IKA, Antonio Lopez de Gereñu Ikastetxea, Lopez de Gereñu Ikastetxeko Guraso Elkarte, Koldo Mitxelena Institutua, Odon de Apraiz Ikastola eta Aranzabela Ikastola.

Diru eta lokal ezean

Esan bezala, Euskharan egitasmoak auzoa euskaldundu nahi du, ikastetxeetan eta euskaltegietan egiten denari kalean jarraipena eman nahian. Hori gauzatzea posible dela erakusteko frogatxo bat egin dute uztailetik hona. Epe horretan, ia egunero, gai ezberdinen inguruko hitzaldiak antolatu dira, euskarazko ikasleek ikasturtean harturiko euskara



ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna



Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



Uetzal

HegoAmerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea • S. Frantzisko
kantoieko ertzean Tfnoa: 25 03 52



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ



maila udan gal ez zezaten. Esperientzia ezin hobea izan dela jakinarazi digute antolatzaileek, inolako dirurik izan ez badute ere.

Izan ere, diru eta lokal falta dira Euskharan egitasmoa ostopatzen duten gabeziak. Erakundeetatik onespena jaso arren diru-laguntzak franko atzeratu dira eta horren kexu ageri dira arduradunak. Lokal bat ere beharrezkoa dute, baina dirurik ez tokirik alokatzeko. Horregatik Perez Galdos plazako *Amaia* eraikinean jarri zituzten begiak. Auzoaren bihotzean dagoen eskola izandako eraikina txikiegia da edozein aktibitate burutzeko.

Hori dela eta hutsik dago aspaldi. Euskharanentzat, baina, ezinego-kiagoa da eta, ezetza jaso duten arren, oraindik ere Amaiak Euskharan bere baitan jasoko duela amets egiten dute.

Hainbat ideia berri

Euskharanek bultzatu nahi dituen ekimenen artean *Arannet* dugu deigarriena. Teknologien etengabeko aurrerapenek gizarte baldintzatzen eta berau uneoro berziklatzera behartzen dutela eta,



Aranbizkarra,
Aranbide,
Aranzabela
eta
Zaramaga
auzoek
hiriaren
populazioaren
laurden
bat
inguru
jasotzen
dute

Arannetek informatika zein telematika sareetan euskararen normal-kuntza bultzatu eta sustatuko ditu. Euskharan harremanetan jarri da jada *Itturri Kulturgintza Zerbitzuarekin*, Aranneten ardura izango duena. Aranneten oinarritzko informatika, diseinu grafikoa, diseinu teknikoa, 3 dimentsioak, mugimendua eta beste hainbat arlo jorratuko dira. Ondoan dituzue euskaraz landu ahal izango diren aplikazioetako bakar batzuk: Word, Pagemaker, Adobe Photoshop, QuarkX-Press, Freehand, Internet Explorer,

MS Excel, Painter, Movie Player, Claris Works, eta beste hainbat.

Baina hauek Euskharan egitasmo haundiaren xehetasun batzuk besterik ez dira. Datozen hilabeteak oso inportanteak izango dira, dirua edota lokala lortzen duten jakiteko. Geu Gasteiz aldizkaria gertatzen denaren zain izango da, Euskharan eta sortzen diren antzeko egitasmoak ahal dugunean lagundu eta bultzatu nahian. Zorte on!

TESTUA: ASIER PZ. DE KARKAMO

LA RIOJANA
jatetxea
on egin! bokatak, pintxoak,
kazuelatxoak
Aiztogile (KUTXI), 33 tfnoa. 25 02 39

OGI
E
T
O
R
I
xurrut

KUTXI 103
GASTEIZ

BAR KLAKÉ

KVTXA, 2
TFNO.
143883
GASTEIZ

LANDABURU AKADEMIA
klaseak !!
KLASE
PARTIKULARRAK
Guatemala, 12. behea. 12 09 50

AMILAMIA
arropa eta osagarriak

Pintore kalea, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

XIXILU
AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ
J
A
T
E
T
X
E
A

285
geu gasteiz

disk-jockeyak baino gehiago



Benetako musikaren bila gabiltza, sentimenduz egindako musika, hain zuzen

Musikaren bitartez giro berezia eta ederra eman nahi baldin badiozu zure edozein gauzari, ez egon zalan-tzan: Silum Soundz-ekoek lagunduko dizute-eta. Baina kontuz!, ez pentsa ohiko disc-jockey-ak direnik, ez. Silum-eko lagunek musikarekiko jarrera berria aldarrikatzen dute, industriak eskaintzen digunetik urrun. Utzi lagun hauei zure lokalean pintxatzen, eta eurak kalitatezko soinuak zure belarrietara hurbiltzen saiatuko dira. Baita lortu ere.

Hala Bedi Irratian. Badakizue, zuk zeuk egin, sistema eta orduko egoera soziala borrokatu eta abar. Bestalde-tik, Silum Soundz-eko partaide bat talde batean aritua da. Betidanik benetako musikaren bila ibili gara, sentimenduz egindako soinuen bila, hain zuzen; musika unibertsala, hizkuntzez eta etiketez ulertzen ez duena, mugarik gabekoa.

Eta zein musika mota da hori?

Lehen esan dizuegunez izpiritua duena, belarrietara xalotasunez hel-tzen zaiguna. Musika eta erritmoei dagokienez, ez dugu inolako aurririt-zirik, zabalak gaituzue, eklektikoak. Dena dela, gehien erakartzen gaitue-na mundu beltzetik datorrena da, hauek baitira erritmoarekiko senti-kortasun handienaren jabeak. Urtee-tan musikari beltzek erraz onartu eta eskuratu dute garapen teknikoak eskaintzen diguna. Mendearen er-

Ostegunero Zapa kaleko Capi-rote tabernan topatu ahal izango dituzu musika pin-txatzen. Jendea gustura egotea, kali-tatezko musika eskaintzea, guztion artean banatuz. Horixe da, hain zuzen, Silum-ekoen asmo bakarra eta

eskergarria. Eta hauxe Silum Sound-zeko kide den Iñaki Markinezek esan zigute.

Nola jaio zen Silum Soundz?

Gure jaidura musikala aspalditik dator. Duela urte batzuk punk jarre-raz eginiko musika saio bat genuen

24
geu gasteiz

bar • restaurante • albéniz

Errege Atea 9

GASTEIZ

PLATO
TABERNA

22 65 64
GASTEIZ

Zaldiaran Plaza, 10

JANTZI ETA OPARIAK

Aiztogile (KUTXI), 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



Harremanetarako helbideak:
<http://web.jet.es/iografix/silum>
<http://web.jet.es/iografix/silumn.htm>

Gehien
 erakartzen
 gaituena
 mundu
 beltzetik
 datorren
 musika
 da

betiko txunta-txunta-rekin asperturik dagoela, alegia. Dena dela, tabernak negozioak direla, eta tabernariak euren interesak defendatu behar dituztela hartu behar dugu kontuan. Baina musika jarri eta erosterakoan irizpide eta kultura eza nabarmena dagoela deritzogu, eta horixe da, prezski, industriak behar duena bere produktuak saltzen jarraitu ahal izateko. Oso eztabaidagarria da Alejandro Sanz-ek edota Mecano-k kalitatezko musika egiten dutela pentsatzea.

Pizgarria al da komunikabideek zabalitzen ez dutena bilatzea?

Bai, oso, zeure kabuz bilatzen duzulako eta inork ematen ez dizulako.

Zein da gogokoen pintxatzen duzue-na?

Hori saioa eta unearen araberakoa da. Hainbatetan oso gustura egoten gara soul eta jazz-arekin jokatzeko, eta beste batzuetan, aldiz, drum and bass hutsarekin primeran gaude. Taxu desberdinetako disko asko izanez gero, aldatzen eta aprobetxatzen jakin behar da.

Eta zein da inoiz pintxatuko ez zenuketen hori?

Guk ez diogu inongo taldeari, bakarlariari edota musika estiloari uko egin ohi. Ezin daiteke esan hau ala bestea sekulan errepintxatuko ez duzunik. Beharbada, urte batzuk barru....

Zeintzuk dira zuen proiekturik gertuenak?

Orain gure estiloko Silum Soundz kamisetak eta arropa ari gara sortzen. Musikarekin esperimentatzen dihardugu, guk geuk egiten... Denbora gehiago bagenu bideoaren munduan edota beste edozein arlotan murgilduko ginatke. Betiere musikaren bitartez, jakina!

**TESTUA: TXABI ARNAL GIL
 ARGAZKIAK: SILUM SOUNDZ**

dian Mississipiko blueslariek ez zioten inongo oztoporik jarri musika tresna elektrikoaren iraultzari, eta gaur egun gauza bera egiten jarraitzen dute. Aise moldatu dira erritmokaxetara. Arazo ekonomikoengatik teknologia merkeenera hurbildu diren arren, honek eskaintzen dien gutzia probetxuzko gertatzeko gauza izan dira.

Orduan, zuen lanean musika beltza izan ohi da nagusi.

Um, agian bai, baina benetan interesatzen zaiguna musika nahastea da, eta horretarako hip-hop-az baliatzen gara, zeren musika mota honek oso landua baitauka soinuak eta musika tresnak bereganatu zein ustiatzeko gaitasuna.

Orduan zuen gogoko musika topatzea ez duzue lan erraza izango.

Ez. Denbora luzea eman behar da musika bilatzen zerbait ona topatu ahal izateko.

Pintxatzen aritzen zaretenean, ezinezkoa al da abesti oso bat entzutea?

Ez pentsa! Zenbait kanta nahas daitezke. Beste batzuk, berriz, hasieratik azkenera soinu egiten uzten ditugu. Hori eguna, unea, eta pintxaren gogoia eta tankeraren arabera suertatzen da.

Taberna edo festa batean pintxatzen duzuenean, zuen diskak eramaten dituzue?

Bai. Diska ugari eta era askotakoak

ditugu, gehienak biniloizkoak, zeren betiko diskoa, ondo grabatuta egonez gero eta soinu-tresna baduzu, askoz hobeto entzuten baita. Diska batez lor daitezkeen soinu behekoak ezin pareka daitezke KD batek eskaintzen dituenekin. Gainera, egun, scratch teknikak oso osasun ona du. Disc Jokey-ak ospe bikaina izaten ari dira musika mundu honetan, musikaritzat hartuak dira orain; bakarlaritzat edo turntablist-tzat, hain zuzen ere.

Horixe al da diskoak eta KD-ekin jokatzeko nabaritzen duzuen alde bakarra?

Ez, diskoa askoz ukigarria da, modu aberatsago batez bizitzen da. Nolanahi ere, KD batekin ere joka daiteke.

Pintxatzeko kontratatzen zaituztenek zer eskatzen dizute?

Guk giroa sortzea nahi izan ohi dute. Azkenengo bideo jaialdian chill out-en (atseden gunea) arituginen pintxatzen. Gero, Dardara tabernan, amaiera alternatibo bat eman nahi izan genion jaialdiari, pintxatzen, jakina!

Zuen buruan, musika ona entzuten al da Gasteiko taberna eta aretoetan?

Ez. Tabernari gehienek uste dute euren bezeroek txunta-txunta gogoko dutela, eta gainera, musika mota hori jarri ezean jendea aspertuko delakoa daude. Eta, xelebrea txo!, gure ustez kontrakoa gertatzen da; jendea

J A T E T X E A

 Aiztogile (KUTXI), 26 tfnoa: 28 81 47
GASTEIZ

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER
 harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
 Errege atea, 24
 Tfnoa: 25 56 90 **GASTEIZ**

OKOIA!
 arropa eta osagarriak
 NEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
 Pintore kalea, 23 • Tel. 28 18 38

gaurkoak eta betikoak

rock'n'rolla-aren historia formato berrian



IZENBURUA: BERLIN.

TALDEA: LOU REED.

DISKETXEA: RCA RECORDS

URTEA: 1973.

The Velvet Underground taldea desagertu ondoren, bi urte igaro ziren Lou Reed musika mundura bueltatu arte; eta egia esan, ez zen, ez, bide okerretik itzuli. 1972 urtean Reed-ek tinko heldu zion arrakastari Transformer lp-aren bidez, eta are gehiago berehala himno bilakatu zen Walk On The Wild Side abestiarekin. Alabaina, Reed-ek bere formula magikoa asmatuta zuela zirudien arren, hurrengo diskoaren eraginerako ez zituen lehenengoaren osagai berdinak erabili behar izan, ezta nahi ere.

Disko batetik bestera erabat aldatu zen New Yorktarraren laguntzaile zerranda. Hori horrela, David Bowie-ren ordeaz, Bob Ezrin arduratu zen produkzio lanez, eta musikariei zegokienez, talde harrigarri eta ezinhobe batek eman zion kolorea malenkonkia alde guztietara zabaltzen duen Berlin izeneko diska honi.

Berlin-ek, notarik nota eta abestiz abesti, bikote drogazale baten bizitza eta neskaren (Caroline) heriotza azaltzen digu. Mutilak, argazki bilduma baten bitartez, lehenaldiko egunei egiten die so: Caroline Berlin-en ezagutu zueneko (Berlin), Caroline-ren dantzarako zaletasuna (Lady Day), Caroline-ren desioa (Caroline Says), heroinazale bilakatu zirenekoa (How Do You Think It Feels), amaieraren hasiera (Oh Jim), eta, azkenik, buruhiltzea (Sad Song). Hamar abesti guztira, erritmoa bizituz batzuetan, motelduz besteetan, tristezia nagusi beti.

Kaleratu zenean Berlin-ek ez zuen kritika onik jaso. Hala ere, egun, iraganaldiari begira, urteak joatearekin batera, ez dugu inolako zalantzarik: Berlin osatzen duten hamar abestiak Reed-ek inoiz eskaini digun oparirik ederrena dugu. Datatu!

TXABI ARNAL-GIL

beste batzuk

ADELANTE SIN CABEZA

parabellum

JENO RECORDS

Izan zitekeena baina izatera heldu ez dena. Horrelaxe labur daiteke agian Parabellumen azken lana. Zerbait gehiago espero nuen nik behintzat. *Hace falta...* edo *Bronka en el bar* bezalako diskoekin hainbeste kilikatu ninduen hirukotearengandik. Beti bezain rockzale eta inoiz baino militantago, hori bai, baina hainbat urtetan egindako bidean ezer gutxi berria. *Adelante sin cabeza r'n'r* disko ona da. *Somos los unicos...* lanari hasiera ematen dion sekulako instrumentala da. *Volemos muy alto*, *E.T.T.* eta *Violentos* gustukoak izango dituzue. Baina beste zenbait doinuk ez dizute ezer berririk esango, parabellum soinuaz jantziagiak baitaude. Kitarrak errepikatzen dira, batzuetan aspertzaraino, eta hizkiak ere ximplekerian erortzen dira. Nolanahi ere, disko ona da, tabernetan asko entzungo dena.

CLANDESTINO

manu chao

CHISWALA / JIRÓN

Hamahirua zorigaiztoko zenbakia dela uste dutenez hona hemen ostikada galanta, ez baita Manu Chao *Clandestino* bildu dituen 13 abestietan balio ez duenik. Dantzarako (*Bongo bong*), maitemintzeko (*Minha galera*), borrokatzeko (*Desaparecido*) eta, batez ere, ondo pasatzeko ezinegokiagoak dira Mano Negrako liderraren bakarreko lehen abentura. Hegoamerika misiolari oportretan zeharkatu ostean erritmo latin-darretan maisu bilakatu zitzaigun Chao, gerria mugiarazteko bertan jaiotzea beharrezkoa ez dela ederto erakutsiz, reggaea kantatzeko The Wailersen lurrean bizi behar ez den bezala.

**PUBLIZITATERIK MERKEENA
ETA ERAGINKORRENA**

**G E U
GASTEIZ**

PEDRO ASUA, 2. 3A.



GORETTI


ILEAPAINDEGIA

Hedegile (KORRE), 14 San Migeleko Pasabidea

Tfno: 12 08 88

01001 - GASTEIZ

**MARRAZKIAK
KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK**



Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 13 27 20

GASTEIZ

DIBUtec

Lantazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- Fotokopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean

**Arte ederretarako...
behar duzun
guztia**

PAPERTEGI TEKNIKA



**e
g
u
n
e
k
o**

**MIKEL
DELIKA**

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

LEHIAKETAK

Itzulpen laburrak. Arrasateko AED Elkarteak Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren XII Sariketarako delaldia zabaldu du. Gai librean, munduko edozein hizkuntzatatik itzultitako idazlanak aurkez daitezke. Bi sari izango dira, 200.000 eta 100.000 pezetakoak. Xehetasun gehiago eskatzeko eta lanak bidaltzeko hona hemen helbide hau:

AED Elkarteak - Jokin Zaitegi Sariketa
Pablo Uranga kalea, 4 behea.
20.500 Arrasate (943 77 12 28)

Ondarroako Itsas-azoka

narrazio saria. Batueraz zein bizkaieraz, Arrantzako bizibidea, esaerak, arrantzu-erak eta tresnak, kofradien eraketa eta oro har, itsasoa eta Ondarroari lotutako gaiak oinarri hartuta, 10 eta 25 orrialde bitarteko lanak onartzen dira. 300.000 pezeta saritan. Lanak hartzeko azken eguna irailaren 15a izango da. Informazio gehiago honako lekuan:

Lea Artibaiko Amankomunazgoa
Oletako Eskoletxea, Ugاران auzoa
Amaroto. (94 684 26 96)

Argazki lehiaketa gazteen-tzat.

Arabako XI. argazkilarik gazteen lehiaketa antolatu du Arabako Argazkilarien Elkarteak. Foru aldundiko Kultura eta Euskara Sailak babesten duen ekimen honetan 12 eta 19 urte bitarteko arabarrek har dezakete parte, hala bakarka nola taldeka, ikastetxe, Institutu edo gazte Erakundeen bidez. Gaiia librea da eta 1998ko urriaren 23an bukatuko da argazkiak aurkezteko epea. Edozein teknikak balio du.

FESTAK

Trebiño eguna 98. Irailak 13.

Argote. Txistu kontzertua, Herri kirolak, Dantzak, Antzerkia, Herri Bazkaria, Artisau azoka, Superbat, Bounzin, Latzen...



Añana Euskaraz 98.

Irailak 20. Gesaltza. Añanako I. euskal musika errezeptaria, Oskori, Alaitz eta Mainer, haurrentzako jolasak, arisau azoka, gatzaren ibilbidea...



MUSIKA

Euskadiko Orkestra

Sinfonikoa. Glinka, Prokofiev, Dvorak eta Shostakovitchen lanak aurkezten ditu EOSk ikasturteko lehenabiziko emanaldian. Honakoan zuzendaria Rudolf Barshai izango da eta pianoan Lazar Berman antuko da.

Irailak 18, ostirala.
Arratsaldeko 20:00etan.
Besaulkia-Anfiteatroak: 2.250/1.350.
Principal Antzokia (945 16 10 45)

ANTZERKIA

Els Joglars. Albert Boadella zuzentzen duen antzerki talde kataluniar paregabeak La increíble historia del Dr. Floit & Mr Pla antzezlanaren aurkeztuko du irailaren 24an gure hirian. Lanak Kataluniako tribuaren betiko ezkirofenia azalarazi nahi du, Boadellarenen ohiko umoreaz jantzia.

Irailak 24, osteguna, 20:00etan.
Besaulkia-Anfiteatroak: 2.000/1.750/1.500.
Principal Antzokia (945 16 10 45)

NATURA

Arabako Natur Institutua.

Merezitako oporrak hartu ostean bueltan ditugu berriz ANIkoak. Hilabetea ur gezatara algeri buruzko ikastaro batekin hasiko dute, sesio teorikoak (hilaren 9, 10 eta 11n) eta sesio praktikoak (larunbata 12an) barne. Irailak 19an, berriz, Gasteizko mendietan barrena ibilbidea egingo da, urtaroro egin ohi dena eta udazkeneko urtarorari dago-kiona. Hilaren amaiera aldean III. Marrazki naturalistan buruzko ikastaroa antolatu dute. Sesio teorikoak hilaren 23an eta 25ean izango dira, praktikoak, berriz, 26an eta 27an.

Arabako Natur Institutua
Pedro Asua kalea 2, 3. solairua.
Telefono eta faxa: 945 24 66 06

AUTODEFENTSA

Arabako Emakumeen

Asanblada. AEAk emakumeentzako autodefentsa ikastaroak burutuko ditu hilaren 14tik 18ra bitartean. Berau Landabaxo Gizarte Etxean egingo da, 1.000 pezetaren trukean, eta alde zuzenetik izen ematea beharrezkoa da. Horretarako Arabako Emakumeen Asanbladara edota Landabaxo Gizarte Etxeko telefonoetara deitu besterik ez da egin behar.

Landabaxo Gizarte Etxea
Santa Maria kalea, 4. 945 16 16 80

erakusketak

MONTEHERMOSO.

Vitoria-Gasteiz, horixe da Montehermosoko Oihanderra aretoan irailaren 11ra bitartean jasoko duen erakusketa. Gasteizko Jazzaldiko argazkiak, hiriko hainbat maketa, bi CD-Rom eta Udal Turismo Bulegoak eginiko bideo bat izango dira ikusgai.

KORDOI ETXEA.

Arabako historiaurreko faunaren inguruko erakusketa deigarria da, Arabako Natur Institutuko X. urteurrena dela eta, irailaren 26ra arte Aitzogile kaleko Kordoi Etxeak dakargun ekitaldia. Guztira 200 bat animalien hezurak aurki daitezke: kobazuloetako lehoiak, artzak eta panterak, besteak beste..

AÑANA EUSKARAZ

Arabako euskal idazleak, Geu Gasteizek antolatutako erakusketa ibiltariak Gesaltza bisitatuko du irailaren 20an gatzazko hirian ospatuko den eskualdeko euskararen aldeko egun handian. Gure herrialdeko euskara idatziaren historia gogoratzen duen mostra honetan ohorezko lekua izango du Fermin Herran y Tejada gesaltzatarrak (1852-1908), iragan mendean gure hizkuntzaren alde eginiko lanagatik.

lehiaketa

I. GEU GASTEIZ UDARAN ERE ARGAZKI LEHIAKETA

ALDIZKARIKO HARPIDEDUNENTZAT

ONARRIAK

Oporretan ateratako argazki oro aurkez daitezke, baldin eta beronetan gure aldizkariaren azalen bat agertzen bada. Mendira, hondartzara edota basamortura bazoaz, Araban geratu ala urrun bidaiatzea aukeratu

baduzu, eraman zurekin ale bat eta sari piloa irabaz dezakezu.

ARGAZKIAK AURKEZTEA

Argazkiak koloretakoak izan behar dira, 10x15, 15x20 edota 18x24 neurrietan. Diapositibak ez dira onartuko, bai ordea diapositiba batetik eta aipaturiko

neurrietako batean paperean ateratako kopiak.

Argazkiak postaz bidali behar dira, irailaren 15a baino lehen. Argazkiak gain, paper zuri batean argazkia atera duenaren izen abizenak, adina, helbidea, telefonoa, eta argazkian atera duen lekua (herria, herrialdea, nazioa...) adierazita egon behar dute.

EPAIMAHAI

Zein argazki saritu hiru per-

tsonek osaturiko epaimahai batek erabakiko du (Geu Gasteizko kide bat, Geu Elkarteak kide bat eta argazkilaritza aditu bat). Argazkiaren kalitateaz gain argazkian aldizkariak duen agerpena ere kontuan izango dute.

SARIAK

Lehiaketaren oroigarriak, afari goxoak, kamiseta euskaltzaleak, liburu-sortak, eta askoz ere sari gehiago.

piti pata

JAIORRIAK

Pluff, pluff!

Ainhoak panpinak oso maite ditu, baina batez bat dauka txit berezia dena berarentzat. Gainera, ez da ohiko panpina, baizik eta kixkurtu eta soinua egiten duen horietako bat. Badirudi panpin hau apartekoa dela, bere ahizpak ere gustuko duelako eta tirabira dabilta panpina hartu nahian.



URTE BATZUK GEROAGO, 2-5 urte



Irristalaria

Urtean zehar arraroa da irristalariak kaletik ikustea, baina eguraldi ona ageri denean sarriak dira zoruetatik labantzen diren horietakoak. Joakin irristalari goiztiar baten kasua dugu eta, nahiz eta lehenengo alditan maiz lurretik ibili, denborarekin hain ondo ikasi du ibiltzen, ezen bere lagunengan inbidia sortarazi baitu.

HAUNDITZEN, 6-12 urte

Ipuina:

BARAZKIAREN
ISTORIA

Behin batean barazki bat zegoen eta esan zuten barazkiak: *Joango naiz herri batera.* Eta horixe egin zuten. Han jai bat zegoen, baina sartzerakoan amaitu zen, eta zein suerte txarra zuten esanez bere etxe-



runtz abiatu zen. Han antzerki bat prestatuko zuten bere lagun guztiak gonbidatuz. Banoa etxera, agur! ikusi arte!

Uxue, 7 urte.
Barrutia Ikastola.

ba al zenekien



Judoa 1882. urtean Jigoro Kano japoniar gazteak asmatutako arte martziala da. Jatorrian Jiu-jitsu izeneko beste arte martzial bat du. Jiu-jitsuren moldaketa bat da, hortaz, judoa.

Judo hitzak, japonieraz, honako esanahia du: *ju*, flexibilitatea eta *do*, bidea. Flexibilitatearen bidea

edo artea da, beraz, judoa. Berehala, judoak garrantzia handia lortu zuen Japonian, borrokatzeko baliagarria izateaz gain, norberaren arima lantzen baitzuen. Garrantzia horren adibide bat: 1.885. urtean, hau da, Kanok judoa asmatu eta hiru urtera, Japoniako polizia izateko beharrezkoa zen arte martzial hau praktikatzen jakitea.



GAZTETXOAK, 13-17 urte

Gasteiztik
Lehitxora,
beti jaiei begira

Mirenek udatik atsegin ez duen gauza bakarretako bat da Gasteizko festetan ibiltzen den jende mordo, bereziki Foru plazako kontzertuetan. Bultzakadak, aurrera joateko



ezina eta beroa dira ohikoenak. Gasteizko festetan ezezik, Lekeition ere igarotzen ditu oporrak sakibaloian jolastan edota beltzaran jartzen, eguraldiak laguntzen badu, noski.



ainara



david



jon p.

javi



jon



Datorren hilabetean zure marrazkia argitaratua ikusi nahi baduzu bidaligu zue honako helbidera:
Geu Gasteiz aldizkaria
Pedro Arsuaga kalea 2. ja.



Judoa tatami baten gainean egiten da, pinutzik. Judoa egiten dutenak judokak deitzen dira eta beren arropa judoguia. Judoguia praka eta alkandora txuri eta koloredun gerriko batek osatzen dute. Gerrikoaren kolorea judokaren mailaren arabera aldatzen da. Hasiberriek gerriko zuria dute, eta maila gorenekoek, berriz, beltza. Gerriko bel-

tza dan deitzen da.

Judoa haurrentzako oso gomendagarria den kirola da. Judoa ez da, askok uste duten bezala, kirol gogorra. Arte martzial honek, norberaren burua defendatzen erakustez gain, adimena areagotzen du, ez bakarrik judoa praktikatzerako orduan, bizitzaren arlo guztietan, baizik.

ETORKIZUNERA BEGIRA

Nagore Zeberio / ikaslea

urtengo ikasturtea bukatu ondoren, UBI-ko ikasleei bizitzan aldaketa garrantzitsua ekarriko digun ueña iristen zaigu. Lau urteren zehar egindako lanaren emaitza nota sinple batean islaturik agertuko zaigu eta, zenbaki honen arabera, etorkizunaren atea irekiko dizkigun Unibertsitatera sartzeko aukera erosteko ueñan egongo gara.

Zoritxarrez, bati baino gehiagori bere ametsetako ikasketak egin ahal izatea beste bizitza baterako utzi beharra ere suertatuko zaio, eta patuak honela aginduta, beste bide batetik abiatu beharko unibertsitate- mundura...

Inguru honetan murgilduta aurkitzean sentimendu anitzek inguratzen dute Unibertsitatera sartuko den laguna. Alde bate-tik, jende berria ezagutzeko posibilitatea dago, irakasle berriak... baina noski, hau nahiko aldakorra izan ohi da, pertso-na eta egoera bakoitzaren arabera, eta nire ikuspegitik azal-teari deritzot egokien.

Betidanik erlazionatu izan dut Unibertsitatea independen-tziarekin, etxetik kanpora alde egiteko ordua, hiri berri bat..., egin nahi nituen ikasketek kanpora joatera behartzen baininduten. Hau dela eta, hasieratik neukan garbi ez nuela etxean jarraitzeko aukera hautatuko eta baldintza guztiak betez gero, jaioterria utzi eta astean zehar kanpoan lo egingo nuela. Egunak aurrera joan ahala, asmo guztiak aurrera zihozazela ikusten nuen, hauta-proba egin eta lehendabiziko berriak iristen ziren egunetan. Honek ideia garbi bat edukitzera bultzatzen nin-duen; betidanik izandako ametsa betetzear zegoen eta ezin nin-tekeen hain momentu garrantzitsu batean atzera begira geldi.

Ez pentsa, momentu erabakior hau gogorra suertatzen da. Ez Unibertsitatean baiezkoa ematea zaila delako, bizitza berri bati hasiera emateko orduan zaudelako, baizik.

Nire ametsa bete zen azkenean. Betidanik izan dut buruan hiriz aldatzea, erresidentzia edo pisu batera joatea, ikasketa berriak hastea, lagun berriak egitea... Baina hau guztia egia bihurtzekotan zegoela ikustean, zalantza eta beldurrek galde-rez bete zidaten burua. Familia utzi beharrak kilima berezia eragin zidan barnean, gogo handia banuen ere, aurrera joateko ausardia edukiko ote nuen ez bainekien, eta lagunik ez ezagu-tzeak ere nahiko buruhauste eman zizkidan. Nire burua lasaitu nahi izaten dut kristo guztia berdin egongo dela pentsatuz, baina ni bezalako inor aurkitzen ez badut? Oraindik ere galde-ka ibiltzen natzaio neure buruari. Hala ere, erabakitzeke ueña

iritsi zen uztailean eta aurretik izandako galdera guztiak alde batera utziz, esperientzia berri bat izateari baiezkoa eman nion, damutzeko denbora izan gaberik.

Eta modu honetan udara ere igaro da jadanik, irailaren buka-era iristear dago eta honekin batera hainbeste bira emanarazi dizkidan ueña. Ez pentsa, egun batzuetan oso ziur aurkitzen naiz, badakit zer nahi dudana, eta gogor eragiten diot neure buruari hemendik hilabete batera ikasten hasi behar dudala esa-nez. Prest nago aurrera jarraitzeko, badakit ez dela erraza izan-go. Baina horrek ez nau beldurtzen, inguruak laguntzeko prest edukiko ditudan ustea baitut. Nolanahi ere, badakizue, betikoa, beste egun batzuetan negargurak begiak bustitzeko beharra asetzea eskatzen dit, irtenbide bakarra hori balitz beza-la, bukaerarik ez duen tunel luze batean izango baintizan. Negarrez hasteak, ordea, ez didala ezertan lagunduko pentsatu, eta arnasa sakonki hartuz konpondu nahi izaten dut momentu horietako nahigabea. Zer gertatuko zait hemendik egun batzue-tara? Hau da neure buruari gehien galdetzen diodana. Esperien-tzia handiagoa daukatenez ez larritzeko esaten didate, agian ohitura hartzeko hilabete oso bat behar izango dudala etab. Hasieran ez dela erraza izango, baina konturatzerako Gasteiza oporretara baino ez naizela etorriko ere esaten didate. Hori ere ez da gura dudana, baina ulertzekoa da dozena erdi bat urte hiri berri batean igaroz gero, bizilekua aldatzen zaiola edonori.

Betiko lagunek ere badute zeresanik kontu honetan. Kanpora doazenez ez dute ezer esaten nire kasu berdina bizitzen ari bai-tira, baina hemen gelditzen direnei tristura kutsu bat somatzen diet gure asmoei buruz mintzatzean. Beraiek diotenez, hemen-dik epe batera guk lagun berriak egingo ditugu. Eta bizitza berri bat egitean gure eguneroko lagunak beste batzuk izango direla pentsatzeak beldurra sortzen die, hona bisitan bakarrik etorriko garaela uste baitute. Guk lasaitu nahi izaten ditugu, baina egia esan nik ulertzen ditut. Beti iristen da aldaketa bat egiteko garaia eta badirudi momentu hori iritsi dela.

Dena dela, ikusiko dugu zer gertatzen den Unibertsitatera sartzeko gai honekin. Agian aspertu eta hemendik urte pare batera berriz etxean izango naute. Edo dena nik nahi bezala irte-tzen bada, lagun berriak egiteaz gain, zaharrekin ere erlazio ona edukitzen segitzea espero dut, Gasteiza itzultzen naizen bakoit-zean pozik hartuko nauten lagunak izateari utzi gabe.

✓

EGOA LIBURUDENDA



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 14 88 95

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA
Aitzogile (KUTXI) kalean

Argazki - Estudio
Eramun

Heraclio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tnoa: 13 71 02 Tnoa: 26 19 91
01006 01004

ONDOKOETAN BADAGO EUSKARAZ DAKIEN LANGILERIK

UDAL-BULEGOAK ZERBITZUA		HELBIDEA	TFNOA.
Udaletxea	Argibideak eta Erregistroa Emakumeentzako Zerbitzua Errolda Euskara Zerbitzua Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prensa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espania plaza, 1 Espania plaza, 1 Espania plaza, 1 Espania plaza, 1 Espania plaza, 1 Espania plaza, 1 Espania plaza, 1 Espania plaza, 1 Espania plaza, 1 Espania plaza, 1	16 11 88 16 13 45 16 11 06 16 15 22 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Eduardo Dato kalea, 11 Eduardo Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (San Prudentzio kalea)	Gizartegiuntza Hiri Hobekuntza Ingurugiroa	San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko llibidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espania plaza, 1	16 12 88
Kultura	Argibideak	Goiuri Jauregia (<i>Villa Suso</i>)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11 16 13 48
Gizarte Etxeak	Ariznabarra Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Landatxo	Ariznabarra kalea, 19 Alberto Schommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Urriaren Hamabiaren kalea, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Santa Maria kalea, 4	13 36 91 16 18 80 16 17 60 16 17 40 17 17 81 16 16 82
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Bulegoa Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31 16 12 61 16 36 91

UMORRA
Txeroki

IÑIGO SARASOLA

J R A I L E R O . . .



32
geu gasteiz

JARRAITZEN DUGU, JARRAITUKO DUGU

Ainhara Zuazabeitia / Egin Irratiko langilea

azetaria izatea kitzikagarria dela esaten da maiz, eta horrelaxe da. Batetik bestera ibiltzen da kalean albistearen atzetik, jendeari informazioa eman eta, noski, jendearengandik informazioa jaso. Polita da herritarrentzat erabilgarria den zerbait lantzea. Eta irrati batean lan egitea? Birritan kitzikagarria. Momentuko lana da, unean unekoa, zuzenekoa. Magazin, kultur saio, musika saio, albiste..., momentu batetik bestera zabaltzekoa guztia. A ze presak eta estresak horko korridore, estudio eta langeletan! Baina ez pentsa, larritasun une horiek gustura hartzen dira, ez baita nolanhikoa irratiaren beste aldean dagoenarekin lortzen den harreman estua. Gauza ederra da egindako lana norbaitengana iristen dela konturatzeta, eta norbait hori oso gertuko bilakatzen dela pixkanaka, oso barruan sentitzen baita azkenerako lagun horien babes. Gogoz eta ilusioz egiten da egunerokoa.

Barrengo indar guzti hori martxa-martxan genuenean etorri zen Garzon epailearen agindua. Hortxe itxi zuten gure irrati emisora txikia, ondoan zuen egunkari handiarekin batera. Irratia txikia baitzen berez. Metro gutxitan aritzen ginen guztiak nork nor zapaldu beharrean, gure presak bultzatuta. Baina handia, hedaturaz, Egin Irratiaren lana, ia Euskal Herri osora iristen ziren uhinak bidaltzen bait zituen. Itxi ostean heldu diren elkartasun mezu guztiak eman digute aditzera zein handia izan den utzi duen hutsunea. Hainbat mezu, abesti eta gogo airean geratu dira, emisora barruko airean ordea oraingoan, kanpokaldera ateratzeko biderik gabe.


Uztailaren 15ean itxi zizkiguten atea, golpetik, abisurik gabe, traizioz, irratiaren hamar urteko lana eta egunkariaren hogeitau urtekoa etenaz. Baina komunikatzeko grinak hortxe jarraitzen du gure baitan eta, hala, batetik eta bestetik lortutako mikrofono eta bozgorailuen laguntzarekin kalera ateratzeta erabaki genuen, ordurarte gurean protagonista izan zirenen

ahotsek bere lekua edukitzen jarrai zezaten. Ez zen uhinen bidez izango, baina irratiaren izpirituak bizirik jarraituko zuten. Pentsatu eta egin.

Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaietan izan genuen lehendabiziko aurrez aurreko zita gure en-tzuleekin, txosnen eremuan. Gasteiz eta inguruko elkartetako kideak gure mikrofonoen inguruan bildu eta hantxe aritu ginen, lau orduz, gure egoera berriaren aurrean zuten iritzia azalduz eta euren egoera ere zertan zen zabalduz. Elkarrizketak eta musika uztartuz jo genuen aurrera eta, zuek, pixkanaka, gure inguruan bildu zineten. Entzuleak pare-parean, a ze errespetua... eta baita lotsa ere, ez pentsa! Baina gure helburua bete zen, egun batzuetan isilarazitako ahotsa lau haizeetara hedatzea lortu bait genuen txosnen eta, bereziki, Hala Bedi Irratiko lankideen laguntzaz, eta bertaratu zineten lagun guztien babesaz. Bejondeizuela! Froga bat izan zen Gasteizkoa, eta hor lortutako elkartasun mezuek bultzatuta jo genuen Donostiako eta Bilboko Aste Nagusietara.

Harrigarriak izan dira egun horietan jendeak eskaini digun harrera ona eta laguntasuna. Horre-txek erakutsi digu, hain zuzen, Egin Irratia txikia izanagatik ere, han egiten genuen lana Euskal Herriko etxe askotan sartzen zela, txoko izkutuenetaraino ere iritsiz.

EGINEk uhinen eta paper eta tintaren bidez egindako lana garrantzitsua izan da. Berak plazaratzen zituen gainontzeko komunikabideek izkutututako eta isildutako gertakariak. Hantxe egiten zuen hitz gainontzeko komunikabideek izkutututako jendeak. EGINEk erakusten zituen gainontzeko komunikabideek ikusten ez zituztenak. Eta ezinbestekoa da bide horretan jarraitzea, gizarte honek beste ikuspuntu baten beharra baitu. Jarrai dezagun, bada, lanean, geurea, zeurea den komunikabide hori gorpuzteko bidean.



axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

gen gasteiz

JAINKOA, OPORRAK ETA LANORDUAK

Asier Iriondo / bertsolaria

Jainkoak sei egunez egin omen zuen lan eta zazpigarrenean atsedean hartu. Enpresario eta langile batera izatearen abantaila da hori. Izan ere, atsedean noiz hartu erabakitze-ko ahalmena zuen eta ez da gutxi. Ez naiz aditua honetan baina kuxidade hau egiteko hurrenkera hau erabili zuen gutxi gorabehera: Lehenbizi, espazioa egin zuen eta bertan, argitasuna, iluntasuna eta izarrak. Azken hauen artean lurra, eguzkia eta ilargia eratu zituen. Ondoren, bere indarrak lurrean jarririk itsasoa eta zorua egin zizkion eta azkenik, landare eta animaliak sortu zituen. Gizaki eta poliziek ere orduan izan zuten euren sorrera.

Kalkulutan ibili naiz lan hori egiteko behar den ordu kopurua atera nahian, ez baitut uste eguneko 24 orduak lanerako hartuko zituenik. Jainkoak bere lana egiteko nahikoa omen zituen bi hitz. Egin bedi ziren hitz horiek. Kronometroarekin ibili naiz hori esateko behar dudana denbora neurtzen eta bost proba egin ondoren atera zaidan batez bestekoa segundu eta lau hamarrenekoa izan da. Baina, Jainkoa ahalguztiduna denez segundu bakarra nahikoa izango zuela pentsatu dut. Beraz, egin bedi zenbat aldiz esan behar izan zuen kalkulatu dut.

Espazio zabaleko elementuez gain animalia eta landare mota guztiak hartu ditut kontuan eta poliziak egiteko orduan beste segundu bat gehitu diot (gehixeago kostako zitziolakoan) eta 126 mila segundu atera zaizkit (hamarrenak boro-bildu egin ditut). Emaitzak harritu egin nau. Horregatik, beste kalkulagailu hobe batekin eragiketa egin dut berriro eta hamarrenak gorabehera emaitza berbera atera da. Ohartzen al zarete honek adierazten duenaz? ez, orduan zati ezazue segundu kopu-

ru hori hirurogeitan. 2.100 agertuko zaizue eta berriro zatituz gero 35. Hau da, Jainkoak 35 lanorduko astea aski izan zuen bertan bizi beste aukerarik ez dugun zera hau egiteko.

Nolanahi ere, hori ez da bitxieta. Jainkoaren lana ez zen orduan bukatu. Oraindik ere, jo eta ke jarraitzen du lanean: Izar berriak sortzen ditu eta zaharrak hil. Gauza bera egiten du landare zein animaliekin eta noski, poliziekin ere bai. Norbaitek pentsa dezake animalien sorkuntza ez dela jainkoaren lana gaur egun. Baina, ez dut uste guztia animaliangen uzten duenik.

Tira, noan harira: Kalkulagailua hartu eta lan hauek guztiak egiteko urteko behar duen denbora kalkulatu dut. Lehengo sistema erabili dut.

Hau da, sortzen edo hiltzen den izaki bakoitzeko *egin bedi* bat eta beraz, segundu bat. Polizien kasuan bi segundu, noski (uste dut ia aipatu beharrik ere ez dagoela).

Ongi, bada 3.780.000 segundukoa izan da emaitza. Hau 35 orduko lan asteetan banatzen badugu 30 dira eta hortaz, 150 lanegun urteko. Gaur egungo langile zortedunenek 200 lanegun dituzte urtean gutxi gorabehera eta noski 35 orduko gorakoak. Honek esan nahi luke Jainkoa eredutzat hartuko bagenu (edo nagusiek hartuko balute) abutzuko oporraldiak bi hilabetetik gorakoak izango lirakeela eta orain lanean hasi berriak izan beharrean beste hilabete bat izango genukeela Jainkoari errezatzeko.

Sindikalgintza eta eliza ez dirudi oso baturik daudenik. Baina, garaia da aita santua Diez eta Elorrietaren ondoan pankartari helduta ikusteko. Fraide bati baino gehiagori zer pentsatua eman behar lioke honek.

Elizan esan ohi duten bezala (lehen behintzat bai): Jaunak esana... eskerrak zuri Jauna. ✓



geu gasteiz

IRUSTA TABERNA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
 Mateo Moraza 19
 Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

TXUSTA TABERNA
ESPEZIALITATEA: BAT ERE EZ
 Mateo Moraza kalea GASTEIZ



Arriaga

Megadenda

*Arriaga denda berrian
musika eta liburuak
soilki aurkituko duzu.*




Musika

eta

Liburuak

*Zuk bilatzen duzun
guztia 800 M²-etan.*



Arriaga

Megadenda



Gesaltza

urailak 20

herriko plazan

festaren hasiera (10:00), artisau azoka,
J. euskal musika errezitala (10:30-14:00):

txalaparta, txistu, trikitixa,
alboka, dantzariak...

pilotalekuan:

1. mailako afizionatuen
esku-pilota, herri-kirolak,
rokodromoa

igerilekuan:

haurrentzako jolasak, puzgailuak,
pailazoak (13:00): takolo,
pirritx eta porrotx

festaren amaiera
(17:00-22:00)

oskorri alaitz eta maider

egun osoan zehar:

gatzaren ibilbide gidatua, erraldoiak, buruhandiak,
euskal musika, fanfarrea, 5 txosna, eta beste hainbat ekitaldi